



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko apirilaren 27a

62. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean sexu-joerarengatik edo genero-identitate edo -adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5 b) artikulua aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta atxikitako erakundeen bulegoetan errotuluak aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko aurrekontu-aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Eguberriko, Aste Santuko eta udako oporrak aitortzen ez zitzaizkien irakasleek eta irakasle ez diren langileek Hezkuntza Departamentuari aurkeztutako errekursoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, bitarteko lan-kontratua amaiarazteagatiko kalte-ordaina dela-eta Hezkuntza Departamentuan aurkeztutako erreklamazio-eskabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak bere langileei familia-laguntza ordaintzeko darabilen irizpideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuaren menpeko bitarteko funtzionarioen zerbitzu-orrian oporrak aitortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoko ikasleen garraioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoarekin osasun publikoaren eta lan osasunaren arloetan dagoen lankidetzeta-mailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

- Galdera, Nafarroan hutsik dauden etxebizitzetara eta Nafarroako Gobernuaren jabetzako higiezinak eta lurzati eraikigarriak buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, biztanleria aktiboaren gaineko azken inkestak direla-eta Eskubide Sozialetako kontseilariak aipatutako aldaketa metodologikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Foru Legea garatzeko planean jasotako ardatz estrategiko bakoitzerako esleitutako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Foru Legeak garatutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planean errefus-zatiari ematen zaion tratamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Galdera, hondakinak instalazio txiki eta ertaintan balorizatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- Galdera, Tokiko Mapa Hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planarekin uztartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).
- Galdera, Góngora handitzeari eta Iruñerriko balizko zabortegei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (48. or.).
- Galdera, 14/2015 Foru Legeko ekintza planean aurreikusitako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (50. or.).
- Galdera, biztanleria aktiboaren gaineko inkestaren kalkuluari begira Estatuko Estatistika Institutuak egindako aldaketa metodologikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (51. or.).
- Galdera, “Nuevo Futuro Navarra” elkartearekiko hitzarmena berritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (54. or.).
- Galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten D ereduko ikasliburuei edo beste edozein euskarriri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (55. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean sexu-joerarengatik edo genero-identitate edo -adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Foru Lege proposamen honi zuzenketak aurkezteko epea **2017ko maiatzaren 4ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea: "Foru Lege proposamena, Lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualen (LGTBI) berdintasun sozialari eta Nafarroako Foru Komunitatean

sexu-joerarengatik edo genero-identitate edo -adierazpenarengatik diskriminatzearen aurkako politika publikoei buruzkoa." Aipatu foru lege proposamena 2016ko irailaren 9ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5 b) artikulua aldatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. **2017ko maiatzaren 11ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5 b) artikulua aldatzeko Foru Lege proposamenari zuzenketak aur-

kezteko epea. Aipatu foru lege proposamena 2017ko otsailaren 16ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko apirilaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuaren eta atxikitako erakundeen bulegoetan errotuluak aldatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren eta atxikitako erakundeen bulegoetan errotuluak aldatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 6ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna

Ana Beltrán Villalba foru parlamentariak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00024). Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak, horren harira, zuzentzen duen Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiko Ekonomia Ataleko buruaren otsailaren 23ko ofizioa erantsi du, non ematen baitira galderan eskatutako datuak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 14. artikulua betez.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: M^a José Beaumont Aristu

Urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuak ez du eraginik izan Justizia Zuzendaritza Nagusian, zeren eta bai armarrak bai errotuluetan eta karteletan erabiltzen diren logoak Justizia Ministerioari dagozkionak baitira.

Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritza Nagusian ez zen inongo gasturik izan aipatutako foru dekretuaren ondorioz.

Barne Zuzendaritza Nagusian, Jauregiko instalazioetan, honako hauek aldatu ziren:

- 10 kartel.
- 3 binilo.
- 11 xafla.

Guztizko kostua 1.413,28 eurokoa izan da.

Barne Zuzendaritza Nagusian, SOS Nafarroaren instalazioetan, honako hauek aldatu ziren:

- 37 binilo.
- 2 kartel.
- Horma-irudi bat.
- 13 xafla.
- Fatxadako errotulu bat.

Guztizko kostua 5.033,59 eurokoa izan da.

Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusian, Nabarrerria kaleko egoitzetan, honako hauek aldatu ziren:

- Totem bat.
- Sarrerako ateko errotulazioa.

Guztizko kostua 918,39 eurokoa izan da.

Paper-gaztetako gastuei dagokienez, 2016an ez da gasturik izan foru dekretua dela eta.

Jantzi-gastuetan ere ez da gasturik izan, ez eta materialetan, ibilgailuetan eta abarrekoetan ere, foru dekretua onestearen ondorioz.

Ekonomia Ataleko burua: Elena Orcaray Gasque

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana María Beltrán Villalba andreak idatzizko galdera egin du Nafarroako Gobernuaren eta atxikitako erakundeen bulego guztietan, urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretua-

ren ondorioz, 2016an aldatu diren errotuluei buruz (9-17/PES-00024). Honako hau da Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak informatu beharrekoa:

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari dagokionez, informazioa eman ahal dizut Kultura Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuetan eta Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuan gertatutako aldaketei buruz, hain zuzen ere idatzizko galderan aipatzen dituzun alderdiei dagokienez.

Liburutegi Zerbitzuan ez da inolako gasturik egin urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz. Nafarroako Liburutegian errotulu guztiak elebidunak dira, inauguratu zen unetik.

Kultur Ekintza Zerbitzuan zigilu bat erosi zen: 56,46 euroko kostua izan zuen.

Museoen Zerbitzuan gastuak honako hauek izan ziren:

- Nafarroako Museoaren logo elebiduna: 363,00 euro.
- Newslettersen goiburu elebiduna, "Astearteak Museoan" ziklorako: 242,00 euro.
- Nafarroako Museoko Ekitaldi Aretoko mahaiko errotulua egokitzea: 810,70 euro.
- Nafarroako Museoko Historiaurrearen Aretoa (Panel elebidunak itzuli, diseinatu eta ekoiztea): 11.724,90 euro.
- Nafarroako Museoaren barne-seinaleak hiru hizkuntzetan jartzea: 1.886,39 euro.

Aipatu beharra dago, halaber, 290,40 euro bideratu zirela Karlismoaren Museoan ospatzen diren ekitaldietarako erabiltzen den Roll-up-erako, bai eta 363 euro ere Museoen Sistema ele bitan garatzeko.

Artxiboan eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuari dagokionez, eraikinaren errotulazioaren lehen fasea eraman zen aurrea. Kostua 3.823,60 eurokoa da.

Ondare Historikoaren Zerbitzuak, bere aldetik, ez du inolako gasturik izan aipatutako foru dekretuaren ondorioz.

Bestalde, Nabarrera kaleko 39 zk.ko eraikineko fatxadako errotulua egokitu zen: 379,94 euroko gastua izan zuen horrek.

Gainera, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak 2016an erakunde autonomoari atxikitako zentroetako errotuluak berriro zituen. Honako zentroetan xehakutzen da:

- Larrabide Estadioa: 69 errotulu.
- Guelbenzu jolaslekua: 30 errotulu.

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren egoitza zentrala: 2 errotulu.

- Navarra Arena kiroldegia: Errotulu bat.
- Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa: 36 errotulu.
- Printzearen Gotorlekua Gazteen Egoitza: 111 errotulu.

Altsasuko "Otadiko Kristo Santua Gazteen Aterpetxea eta Prestakuntzarako Baliabide Zentroa": 4 errotulu.

Errotulazioa aldatzearen guztizko kostua, errotulu berrien diseinua, ekoizpena eta kokatzea barne dela, 14.732,62 eurokoa izan da.

Azkenik, aditzera ematen dizut Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentu osoan ez zela inongo gasturik izan aplikazio, paper-gauza, jantzi, material edo/eta produktuengatik.

Hori jakinarazi ahal dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2017ko otsailaren 24an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana María Beltrán Villalba andreak idatzizko galdera egin du Nafarroako Gobernuaren eta atxikitako erakunde bulego guztietan, urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz, 2016an aldatu diren errotuluei buruz (9-17/PES-00024). Honako hau da Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariak informatu beharrekoa:

(1) Nafarroako Gobernuaren eta atxikitako erakunde bulego guztietan zenbat errotulu aldatu dira 2016an, urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz? Zehaztu errotuluak non aldatu diren.

Eskubide Sozialetako Departamentuak eta haren erakunde autonomoek ez dute aldaketarik egin beren egoitzetako errotuluetan, urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz.

(2) Zenbatekoa izan da urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz egindako errotulu-aldaketaren kostu osoa, errotulu berrien diseinua, produkzioa eta instalazioa barne?

Urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz ez da inongo gasturik izan.

(3) Zenbatekoa izan da Nafarroako Gobernua-
ren idazpuruaren, aplikazioen eta paper ofizialen
aldaketaren kostu osoa?

Urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren
ondorioz ez da inongo gasturik izan.

(4) Zenbatekoa izan da urtarrilaren 27ko
4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz jantzi-, mate-
rial- eta produktu-aldaketan izandako kostu osoa?

Urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren
ondorioz ez da inongo gasturik izan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parla-
mentuko Erregelamenduaren 14. artikulua bete-
tzeko.

Iruñean, 2017ko otsailaren 27an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel
Laparra Navarro

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamen-
tariaren elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana
Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galde-
ra egin du. Galdera 2017ko urtarrilaren 24ko 348
sarrera-zenbakia dauka (9-16/PES-00024), eta
urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondo-
rioz aldatutako errotuluei eta errotulu horien, men-
breteen, jantzien eta materialen kostuari buruzkoa
da. Hona Ogasuneko eta Finantza Politikako kon-
tseilariak informatu beharrekoa:

Nafarroako Gorteak kaleko 2. zenbakian dau-
den bulegoetako errotuluen kostua, 4/2016 Foru
Dekretuaren aplikazioaren ondorioz aldatu direne-
na, 3.144,35 eurokoa izan da. Erantsita bidaltzen
dizudan dokumentuan ageri da zein errotulu alda-
tu diren eta zein tokitan.

Menbreteen, aplikazioen eta paper-gauzen
aldaketen kostuari dagokionez, ez da inongo bera-
riazko gasturik izan aipatutako dekretua aplika-
tzearen ondorioz; izan ere, zigilu eta abarrekoen
aldaketak 2015ean egin ziren, Departamentuaren
izena aldatzearekin batera.

Paper-gauzei dagokienez, dokumentuak
txantilo bategin erabiltzen dira eta, horrenbestez,
paper-gauza ofizialen gastua oso-oso txikia da.
Gauza bera gertatzen da posta-gauzekin; izan ere,
aldaketa 2015ean eta 2016an egin zen. Hori bai,
ohiko material-eskaeraren bat izan da, beste edo-
zein ekitalditan izan denaren parekoa.

Jantzien eta gainerako materialen kostuari
dagokionez, ez da kosturik sortu aipatutako foru
dekretuaren aplikazioaren ondorioz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-
lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua
betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 27an

Ogasuneko eta Finantza Politikako Ogasuneko
eta Finantza Politikako kontseilariak modu digitale-
an sinatua. Mikel Aranburu Urtasun

Zerb.	MAILA	des zk.	Kokalekua	GOIBURUA		CABECERA	
1	0005 x	14	MAILAKO SARBIDEA	OGASUNEKO ETA FINANTZA POLITIKAKO KONTSEILARIA	OGASUNEKO ETA FINANTZA POLITIKAKO KONTSEILARIA	CONSEJERO DE HACIENDA Y POLÍTICA FINANCIERA	
2	0002 x	14	MAILAKO SARBIDEA	NAFARROAKO ZERGA OGASUNEKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA	NAFARROAKO ZERGA OGASUNEKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA	DIRECTOR GERENTE DE HACIENDA TRIBUTARIA DE NAVARRA	
3	0003 x	14	MAILAKO SARBIDEA	ZUZENDARI NAGUSIA	ZUZENDARI NAGUSIA	DIRECTORA GENERAL	
4	0004 x	14	ATEA	IDAZKARITZA	IDAZKARITZA	SECRETARÍA	
5	0005 x	14	ATEA	NAFARROAKO ZERGA OGASUNEKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA	NAFARROAKO ZERGA OGASUNEKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA	DIRECTOR - GERENTE DE HACIENDA TRIBUTARIA DE NAVARRA	
6	0006 x	14	ATEA	MARÍA BEGOÑA URRUTIA JUANICOTENA	MARÍA BEGOÑA URRUTIA JUANICOTENA	MARÍA BEGOÑA URRUTIA JUANICOTENA	
7	0007 x	14	ATEA	AURREKONTUAREN ZUZENDARI NAGUSIA	AURREKONTUAREN ZUZENDARI NAGUSIA	DIRECTORA GENERAL DE PRESUPUESTOS	
8	0008 x	14	ATEA	OGASUNEKO ETA FINANTZA POLITIKAKO KONTSEILARIA	OGASUNEKO ETA FINANTZA POLITIKAKO KONTSEILARIA	CONSEJERO DE HACIENDA Y POLÍTICA FINANCIERA	
9	0009 x	12	MAILAKO SARBIDEA	ARAJEN GARAPENA ETA AHOJKULARITZA JURIDIKOA	ARAJEN GARAPENA ETA AHOJKULARITZA JURIDIKOA	DESARROLLO NORMATIVO Y ASESORAMIENTO JURIDICO	
10	0010 x	12	MAILAKO SARBIDEA	ERREKERIMENDUAK ETA JEZ	ERREKERIMENDUAK ETA JEZ	REQUERIMIENTOS E IAE	
11	0011 x	12	MAILAKO SARBIDEA	IDAZKARITZA TEKNIKO NAGUSIA	IDAZKARITZA TEKNIKO NAGUSIA	SECRETARÍA GENERAL TÉCNICA	
12	0012 x	12	BESTERIK	ERREGISTROA	ERREGISTROA	REGISTRO	
13	0013 x	11	MAILAKO SARBIDEA	ZERGA IKUSKAPENA	ZERGA IKUSKAPENA	INSPECCIÓN TRIBUTARIA	
14	0014 x	10	MAILAKO SARBIDEA	TRIBUTUEN ARLOKO INFORMAZIO SISTEMAK	TRIBUTUEN ARLOKO INFORMAZIO SISTEMAK	SISTEMAS DE INFORMACIÓN TRIBUTARIA	
15	0015 x	9	MAILAKO SARBIDEA	ZERGA IKUSKAPENA	ZERGA IKUSKAPENA	INSPECCIÓN TRIBUTARIA	
16	0016 x	8	MAILAKO SARBIDEA	PFEZ	PFEZ	IRPF	
17	0017 x	8	MAILAKO SARBIDEA	SOZIETATEEN ETA EZ-EGOILIARREN ERRENTA	SOZIETATEEN ETA EZ-EGOILIARREN ERRENTA	SOCIEDADES Y NO RESIDENTES	
18	0018 x	8	MAILAKO SARBIDEA	ENPRESA HANDIAK	ENPRESA HANDIAK	GRANDES EMPRESAS	
19	0019 x	8	BESTERIK	ERRENTA ETA ONDAREA	ERRENTA ETA ONDAREA	RENTA Y PATRIMONIO	
20	0020 x	8	BESTERIK	SOZIETATEEN ETA EZ-EGOILIARREN ERRENTA	SOZIETATEEN ETA EZ-EGOILIARREN ERRENTA	SOCIEDADES Y NO RESIDENTES	
21	0021 x	8	BESTERIK	ENPRESA HANDIAK	ENPRESA HANDIAK	GRANDES EMPRESAS	
22	0022 x	7	MAILAKO SARBIDEA	ZERGA IKUSKAPENA	ZERGA IKUSKAPENA	INSPECCIÓN TRIBUTARIA	
23	0023 x	6	MAILAKO SARBIDEA	DIRU-BILKETA	DIRU-BILKETA	RECAUDACIÓN	
24	0024 x	6	MAILAKO SARBIDEA	BEZAREN ITZULKETAK	BEZAREN ITZULKETAK	DEVOLUCIONES DEL IVA	
25	0025 x	6	BESTERIK	DIRU-BILKETA	DIRU-BILKETA	RECAUDACIÓN	
26	0026 x	6	BESTERIK	BEZAREN ITZULKETAK	BEZAREN ITZULKETAK	DEVOLUCIONES DEL IVA	

Zenb.	MAILA	des zk.	Kokalekua	GOIBURUA		CABECERA	
27	0027 x	5	MAILAKO SARBIDEA	ZERGA IKUSKAPENA		INSPECCIÓN TRIBUTARIA	
28	0028 x	4	MAILAKO SARBIDEA	BEZA, ZERGA BEREZIAK		IVA, IMPUESTOS ESPECIALES	
29	0029 x	4	MAILAKO SARBIDEA	ONDARE-ESKUALDAKETAK ETA EID		TRANSMISIONES PATRIMONIALES Y AID	
30	0030 x	4	MAILAKO SARBIDEA	OINORDETZAK ETA DOHAINITZAK		SUCESIONES Y DONACIONES	
31	0031 x	4	BESTERIK	ZERGA BEREZIAK		IMPUESTOS ESPECIALES	
32	0032 x	4	BESTERIK	BEZA		IVA	
33	0033 x	4	BESTERIK	OINORDETZAK ETA DOHAINITZAK, ONDARE-ESKUALDAKETAK ETA EID		SUCESIONES Y DONACIONES, TRANSMISIONES PATRIMONIALES Y AID	
34	0034 x	3	MAILAKO SARBIDEA	AURREKONTUAK ETA FINANTZA POLITIKA		PRESUPUESTOS Y POLÍTICA FINANCIERA	
35	0035 x	2	MAILAKO SARBIDEA	HITZARMEN EKONOMIKOA ETA FINANTZA P LANGINTZA		CONVENIO ECONÓMICO Y PLANIFICACIÓN FINANCIERA	
36	0036 x	2	MAILAKO SARBIDEA	DIRUZAINNTZA		TESORERÍA	
37	0037 x	2	ACCESO NIVEL	KONTABILITPUERTA		KONTABILITATEA	
38	0038 x	2	BESTERIK	DIRUZAINNTZA		TESORERÍA	
39	0039 x	1	MAILAKO SARBIDEA	KONTU-HARTZAILETTZA		INTERVENCIÓN	
40	0040 x	0	BESTERIK	LUR-ONDASUNAK		RIQUEZA TERRITORIAL	
41	0041 x	0	MAILAKO SARBIDEA	LUR-ONDASUNAK		RIQUEZA TERRITORIAL	
42	0042	0	BESTERIK	LUR-ONDASUNAK		RIQUEZA TERRITORIAL	
43	0043	0	BESTERIK	LUR-ONDASUNEN ZERBIZUKO HARRERALEKUA		RECEPCIÓN RIQUEZA TERRITORIAL	
44	0044 x	0	BESTERIK	INFORMAZIOA		INFORMACIÓN	
45	0045 x	0	BESTERIK	SARBIDEAREN KONTROLA		CONTROL DE ACCESO	
46	0046 x	0	BESTERIK	NAHITAEZKOAK NANA, PASAPORTEA EDO GIDABAIMENA		OBLIGATORIO DNI, PASAPORTE O CARNET DE CONDUCIR	
47	0047	0	ATE MAGUSIA				
48	0048	0	ATE GIDARIDUNA				
49	0049	0	IGOGAILUA			MAILEI BURUZKO INFORMAZIO PANEL OROKORRA	
50	0050	0	IGOGAILUA			MAILEI BURUZKO INFORMAZIO PANEL OROKORRA	
51	0051	0	IGOGAILUA			MAILEI BURUZKO INFORMAZIO PANEL OROKORRA	
52	0052	0	IGOGAILUA			MAILEI BURUZKO INFORMAZIO PANEL OROKORRA	
53	0053	0	PAREETAKO IGOGAILUA			PAREETAKO MAILEI BURUZKO INFORMAZIO PANEL OROKORRA	

Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen dituen urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuan ezarritakoaren ondoriozko jarduketan gastuari buruz. Hauxe da Garapen Ekonomikorako kontseilariak informatu beharrekoa, Garapen Ekonomikorako Departamentuari dagokionez:

1. Egoitza administratiboan errotulazioari dagokionez, esan beharra dago egin diren aldaketa gehienak egin direla ez urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren aplikazioaren ondorioz, baizik eta unitate administratiboan izendapenak nahitaez egungoetara aldatu behar izatearen ondorioz, aurreko seinaleztapena hobetzeko beharrendaren ondorioz eta beste departamentu batzuekin partekatutako eraikinetan espazioak bereizteko beharrendaren ondorioz. Hauexek dira eraikin bakoitzaren gastuak:

- Tomás Caballero parkea, 1 447,95 euro
- Navarrería kalea, 39 1.345,52 euro
- Amaia kalea, 2 1.150,71 euro
- San Ignacio etorbidea, 3 307,34 euro

2. Paper-gauza ofizialeko menbreteak aldatzeari dagokionez, aipatu beharra dago horrek ez duela gasturik ekarri, zeren eta inprimakiak formatu digitaleko txantiloien bitartez ematen baitira.

3. Jantzi, material edo produktuen aldaketen ondoriozko kosturik batere ez da izan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 27an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz sortutako errotulazio gastuei buruz (9-17/PES-00024). Hona Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuak, dekretu horretan ezarritako aldaketak direla eta, Nafarroako Jauregiko bi faxadetan jarritako bi xafila aldatu ditu. Guztizko kostua 5.019,08 eurokoa izan da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 28an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

Osasun kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (9-17-PES-00024), "elebitasunaren kostuari buruzko informazioa" nahi baitu. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren informazioa:

– Nafarroako Gobernuaren eta atxikitako erakunde bulego guztietan zenbat errotulu aldatu dira 2016an, urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz? Zehaztu errotuluak non aldatu diren.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 6 kartel aldatu ditu zerbitzu zentraletan, eta 850,63 euroko kostua izan dute.

– Zenbatekoa izan da Nafarroako Gobernuaren idazpuruaren, aplikazioen eta paper ofizialen aldaketaren kostu osoa?

Ez dago jasota inongo gasturik egin izana.

– Zenbatekoa izan da urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz jantzi-, material- eta produktu-aldaketan izandako kostu osoa?

Ez dago jasota inongo gasturik egin izana.

Osasun Departamentuan, 4/2016 Foru Dekretua onetsi zenetik, kopuru bakarra dago jasota, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Instituturako zigiluetarako: 442,26 euro dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 21ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (9-17-PES-00024), Nafarroako Gobernuaren eta atxikitako erakunde bulego guztietan, urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuaren ondorioz, aldatu diren errotuluen kostuari buruz (9-17/PES-00024). Honako hau Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariaren erantzuna:

Urtarrilaren 27ko 4/2016 Foru Dekretuak indarra hartzearen ondorioz, Departamentuak egin zuen lehenengo gauza izan zen ekitaldi eta agerrialdietarako González Tablas kaleko eraikinean erabiltzen den hondoaren euskarri magnetikoaren eta euskarri kurbatuaren plantxa egitea eta inprimatzea, Nafarroako Gobernuaren logotipo elebidunarekin. 741,73 euroko kostua ekarri zuen.

Bestalde, Toki Administrazioaren egoitzan ere aldaketa batzuk egin ziren errotulazioan, guztira 838,53 gastua ekarri dutenak.

Guztira, 2016an egin den errotulazio elebidunak eta zigituetako kuxinen aldaketak 1580,26 euroko gastua ekarri diote Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuari.

Bestalde, aditzera ematen da 2015ean Departamentuko arloko bulegoen, zerbitzuen eta zuzendaritza nagusien zigituetan aldaketak egin zirela; horrenbestez, ez da berariazko gasturik izan aipatutako dekretua aplikatzearen ondorioz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 28an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Hezkuntza kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17-PES-00024). Horri erantzuteko Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak aditzera ematen du Hezkuntza Departamentuak, Nafarroako Gobernuaren sinbolo ofiziala eta haren erabilera arautzen duen urtarrilaren 7ko 4/2016 Foru Dekretua aplikatuz, gaur arte ikastetxeetako kanpoko 10 errotulu aldatu dituela. Horrek 1.410,67 euroko kostua izan du.

Beren egoera txarra dela-eta, honako ikastetxeetako errotuluak ere aldatu dira:

- Legasako IPa.
- Arroizko IPa.
- Murchanteko IPa.
- Uharteko BHla.
- Lekarozko IPa.

Bestalde, Bi ikastetxeren izenak aldatu direnez, kanpoko errotulua aldatu behar izan da:

- Joakin Lizarraga IPa – Sarriguren
- Hermanas Úriz Pi IPa – Sarriguren

Azkenik, hiru ikastetxetako beste hainbeste errotulu aldatu behar izan dira, D eredu hartzen hasi direlako:

- Lodosako IPa.
- Tafallako IPa.
- Caparrosoko IPa.

Iruñean, 2017ko martxoaren 1ean.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko aurrekontu-aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko aurrekontu-aurreikuspenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 6ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du 12/2015 Foru Legeko ekintza planerako aurrekon-

tuaren xehakatzeari buruz (9-17/PES-00025). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago ekintza plana egiteko unean jaso ziren aurrekontu-zenbatekoak haren garapenerako egindako aurrekontu-zenbatespenak izan zirela.

Orain igorritako dokumentazioak, jada onetsita dagoen aurrekontua ere baduenak, kontu-sail errealean araberako informazioa jasotzen du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 28an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

Galdera, Eguberriko, Aste Santuko eta udako oporrak aitortzen ez zitzaizkien irakasleek eta irakasle ez diren langileek Hezkuntza Departamentuari aurkeztutako errekurtsoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Eguberriko, Aste Santuko eta udako oporrak aitortzen ez zitzaizkien irakasleek eta irakasle ez diren langileek Hezkuntza Departamentuari aurkeztutako errekurtsoei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 6ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00026). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Eguberriko, Aste Santuko eta udako oporrak aitortzen ez zitzaizkien irakasleek eta irakasle ez diren langileek Hezkuntza Departamentuari aurkeztutako errekurtsuak honako hauek dira:

Iruñean, 2017eko otsailaren 28an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

	Aurkeztuak	Baietsiak	Ezetsiak	Ebazteko daudenak
UDA	166	76	41	49
EGUBERRIAK ETA ASTE SANTUA	244	196	10	38

Galdera, bitarteko lan-kontratua amaiarazteagatiko kalte-ordaina dela-eta Hezkuntza Departamentuan aurkeztutako erreklamazio-eskabideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, bitarteko lan-kontratua amaiarazteagatiko kalte-ordaina dela-eta Hezkuntza Departamentuan aurkeztutako erreklamazio-eskabideei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 6ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00027). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentuari zenbat erreklamazio-eskabide aurkeztu dizkiote funtzionarioek, oinarri harturik bitarteko lan-kontratua amaiarazteagatiko kalte-ordaina dela-eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016ko irailaren 14ko epaia? Erantzuna: inongo funtzionarioek ez du erreklamaziorik aurkeztu, zeren eta funtzionarioek ez baitute bitarteko kontraturik. Langile kontratatuek 238 eskabide aurkeztu dituzte kalte-ordain hori eskatzeko.

Gobernuak Europar Batasunaren ebazpena bere gain hartuko al du? Erantzuna: Funtzio Publikoa zain dago Espainiako Gobernuak erabakia noiz hartuko.

Aurrekonaren ondorioz, Nafarroako Gobernuak ez du inongo erreklamaziorik ebatzi, ez baiezkoan, ez ezezkoan.

Iruñean, 2017eko otsailaren 28an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Hezkuntza Departamentuak bere langileei familia-laguntza ordaintzeko darabilen irizpideari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuak bere langileei familia-laguntza ordaintzeko darabilen irizpideari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 6ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioak 9-17/PES-00028 idatzizko galdera

egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

En cuanto al criterio seguido por el Departamento de Educación para el abono de la ayuda familiar al personal adscrito al mismo, de conformidad con lo establecido en el artículo 50 del Texto Refundido del Estatuto del Personal al servicio de las Administraciones Públicas de Navarra, aprobado mediante Decreto Foral Legislativo 251/1993, de 30 de agosto, se abona a los funcionarios, en las condiciones establecidas en el Reglamento Provisional de Retribuciones, desde el mes siguiente a la fecha de su solicitud. El mismo concepto se viene abonando también al personal laboral fijo desde la suscripción del Acuerdo entre la Administración y los sindicatos sobre condiciones de empleo del personal al ser-

vicio de las Administraciones Públicas de Navarra para los años 2002 y 2003.

En cuanto al personal contratado en régimen administrativo, la reciente sentencia 185/2015, dictada por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo Nº3 de Pamplona en el Procedimiento Abreviado número 185/2015, concluye que la exclusión de la ayuda familiar de las retribuciones que se abonon al personal contratado incurre en vulneración de la Directiva 1999/70/CE del Consejo, de 28 de junio de 1999, relativa al Acuerdo marco de la CES, la UNICE y el CEEP sobre el trabajo de duración determinada y reconoce el derecho del personal contratado a percibir la ayuda familiar con los efectos retroactivos que correspondan.

En este momento se encuentra en tramitación una modificación de la normativa reguladora de este concepto retributivo –el Decreto Foral 158/1984, de 4 de julio, por el que se aprueba el Reglamento provisional de retribuciones del personal al servicio de las Administraciones Públicas de Navarra-, a fin de posibilitar su abono también al personal contratado, en correspondencia estricta con el tiempo de prestación de sus servicios. Una vez que sea aprobada y entre en vigor la señalada modificación reglamentaria, se procederá al abono del concepto retributivo de ayuda familiar al perso-

nal contratado en régimen administrativo con una retroactividad de cuatro años desde la correspondiente solicitud.

Los importes a que da derecho la ayuda familiar son, para el año 2017, los siguientes: 409,50 euros/año por hijo menor no emancipado; 2.047,64 euros/año en el caso de hijo disminuido físico o psíquico; 477,82 euros/año la ayuda familiar por cónyuge que no percibe ingresos o respecto del cual existe obligación de satisfacer pensión impuesta por Resolución judicial; 409,50 euros/año por cada ascendiente o hermano menor de edad no emancipado, huérfano de padre y madre que conviva con el funcionario y dependa económicamente de él.

Las solicitudes presentadas por personal contratado a día de hoy son más de 600 (casi 700), y se está estudiando cada una de ellas para determinar, con carácter previo al abono cuando se apruebe la modificación normativa precitada, si reúnen los requisitos para su percepción.

Iruñean, 2017ko otsailaren 28an / En Pamplona, a 28 de febrero de 2017

Hezkuntzako Departamentuko kontseilaria:
José Luis Mendoza Peña

Galdera, Hezkuntza Departamentuaren menpeko bitarteko funtzionarioen zerbitzu-orrian oporrak aitortzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuaren menpeko bitarteko funtzionarioen zerbitzu-orrian oporrak aitortzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 6ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko gal-

dera egin du (9-17/PES-00029). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren menpeko bitarteko funtzionarioen zerbitzu-orrian oporrak aitortuko al ditu? Erantzuna baiezkoa da, zeren eta Hezkuntza Departamentuan ulertu nahi baitugu galdera UPNren Gobernuak kontratuak ekainaren 30ean, eta ez abuztuaren 31n, ixtea erabaki zuen urteetako udako luzapenei buruzkoa dela. Urte haietako udako ordainketa erreklamatzeko duten bitarteko funtzionario horiei, ordainketa hori baitagokie, zerbitzu-orria ere gaurkotzen zaie, eta udako hila-beteak aitortzen zaizkie. Nolanahi ere, galdera horren formulazioan ez dago argi zein bitarteko funtzionarioi buruz ari den.

2.- Bigarren galderaren bidez jaki nahi da gai hau dela-eta zenbat eskabide aurkeztu diren, zenbat baietsi diren eta zenbat ezetsi. Kontratuak udara luzatzeko eskabideei dagokienez, honako hau da zenbaketa: guztira 284 eskabide aurkeztu dira 2015eko ekainetik, eta horiei gehitu behar zaizkie kontratuaren aurka zuzenean aurkeztutako gora jotzeko hiru errekurso (horrenbestez, kasu horietan ez dago hasierako eskabiderik).

Kontratuaren aurkako 284 eskabideetarako eta gora jotzeko 3 errekursoetarako 477 eskaera (pertsonek) daude: horren arrazoia da eskabideetako batzuetan eskatzaile bat baino gehiago daude edo ikasturte bat baino gehiago biltzen direla.

Halaber, 824 ikasturte erreklamatu dira:

2009/2010 – behin.

2010/2011 – 41 aldiz.

2011/2012 – 144 aldiz.

2012/2013 – 172 aldiz.

2013/2014 – 180 aldiz.

2014/2015 – 193 aldiz.

2015/2016 – 93 aldiz (horretan, foru dekretu berria aplikatzen da).

Kalkulu horietarako, bi alderdi hartu behar dira kontuan:

a) Erreklamazioak 2012an hasi ziren, eta urte hartatik 2015eko maiatzera eskabideei Giza Baliabideen Zerbitzutik erantzuten zieten, ezesteko ebazpen batekin.

b) 2015eko maiatzetik aurrera, bitarteko Zuzendaritza Nagusiak erabaki zuen ezen, Zuzendaritza Nagusi berria eratzten ez zen bitartean, ez zitzaizela eskabideei erantzun behar.

Azkenik, 2017ko martxoko hilabete horretan, kontratua beste 65 pertsonari zabaldu zitzaion.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publiko-ko ikasleen garraioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publiko-ko ikasleen garraioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 6ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak informazio-eskaera bat egin du (9-17/PEI-00030). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentuak urtarrilaren 18an gertatutako bi matxuren berri badu: bata joanekoan izan zen, goizez, eta bestea itzulerakoan, eguerdian, Tuterako Torre Monreal Hezkuntza

Bereziko ikastetxearen eskola-garraioa ibilbidean. Eta horien berri izan du gertatu ziren une beretik.

Lehenengo matxura, alternadorearekin izandako arazo baten ondorioz izan zen, eta bateria aldatu behar izan zen. Bigarren matxura ibilgailuaren plataforma jasotzailearekin du zerikusia; izan ere, ezin izan zen abian jarri, zirkuitu horren fusiblea erre egin zelako. Bigarren matxura arestian aipatutako bateria aldatzearen ondorioz gertatu zen.

Behin ikastetxeari gorabehera horien berri emanda, kontratuko baldintza administratiboen orrietan ezarritakoaren arabera jokatu zen. Hezkuntza Departamentua, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiaren bitartez eta Eskola Zerbitzuen Kudeaketa Bulegoaren bitartez, telefonoz eta posta elektronikoz jarri da harremanetan, behin baino gehiago, bai ikastetxearekin, bai familiarekin, matxuren berri izateko, horrek sortutako egoera ezagutzeko eta behar diren neurriak hartzeko.

Otsailaren 6an bilera bat izan zen ikastetxean, eta hartara joan ziren zuzendaria eta ikastetxeko ikasketaburua, enpresa ordezkatzan zuten hiru pertsona eta Hezkuntza Departamentuko Eskola Zerbitzuen Kudeaketa Bulegoko burua. Bilera hori izan eta berehala, beste bat izan zen, eta hartan ikastetxeko zuzendaritza eta Hezkuntza Departa-

mentuko Eskola Zerbitzuen Kudeaketa Bulegoko burua familiarekin egon ziren, aurreko bileran aztertutako guztia azaltzeko.

Iruñean, 2017eko otsailaren 28an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Euskal Autonomia Erkidegoarekin osasun publikoaren eta lan osasunaren arloetan dagoen lankidetzaz-mailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Euskal Autonomia Erkidegoarekin osasun publikoaren eta lan osasunaren arloetan dagoen lankidetzaz-mailari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 6ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00031), informazioa nahi baitu "Nafarroako eta EAEko osasun publikoko eta lan osasuneko arduradunek izan zuten bilerari buruz." Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Daukagun informazioaren arabera, iraganean hartu-eman batzuk izan ziren Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko eta Osalaneko langile teknikoen artean, beste autonomia erkidego batzuetako antzeko lurralde-erakundeetako harremanaren esparruan.

Legegintzaldi honetan zehar, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Gerentziako Zuzendaritzak eta Lan osasunaren Zerbitzuko Burutzak bi bilera izan dituzte Osalaneko beren homologoekin. Horietako lehena izan zen Eusko Jaurlaritzako erakunde horretako zuzendaritza EAJ-PNVren eskuetan zenean; bigarrena, berriz, Osalanen Zuzendaritzan PSE dagoenean izan da.

Lehenengo bilera 2015eko urrian izan zen, eta bigarrena, berriz, 2017ko urtarrilean. Lehenengo topaketaren xedea izan zen elkar ezagutzeari, Nafarroako arduradunetan izandako aldaketen ondoren, bai Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan, bai Lan Osasunaren Zerbitzuan; halaber, egokitzat jotzen diren gai guztietan elkarrekin lan egiteko posibilitateak eta aukerak aztertu eta zabaldu nahi izan ziren. Halaber, erabaki zen 2016an beste topaketa bat egitea.

Bigarren bilera hori 2017ko urtarrilaren 25ean izan zen, eta hartan honako hauek egon ziren: Osalaneko zuzendari nagusi izendatu berria, Alberto Alonso jauna, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendari kudeatzailea, María José Pérez Jarauta andrea, Osalaneko bi zerbitzuetako buruak, Juan Carlos Coto eta Javier Inda jaunak, eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren Zerbitzuko burua, Iñaki Moreno jauna. Bilera Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak Landabenen duen Lan Osasunaren Zerbitzuko lokaletan izan zen, eta helburua izan zen bi erakundeen arteko lankidetzaz-arloak identifikatu eta operatibo jartzea.

Hona hemen proposatu zen gai-zerrenda:

1. Lehen sektoreko lankidetzak: CANO taldeari buruzko informazioa.

2. Basozaintzaren arloa. Nafarroako Lan Osasunaren Ekintza Planeko Basozaintza Arloaren programa:

– Basozainak.

– Bertatik bertarako prebentzio-baliabideak.

– Laneko arriskuei aurrea hartzeko zerbitzu mankomunatuak

3. Nekazaritzaren arloa:

- Gihar eta muskuluetako arriskuak
- Higijene arriskuak, agente kimikoak
- Adina
- Langile autonomoak
- Sasoikako langileak

4. Beste gai batzuk: Erregistroak, prebentzio zerbitzuak.

Ildo horretatik, bilera horretan, Osalanek interes berezia erakutsi zuen 2017-2020 Nafarroako Lan Osasunaren Planeko Basozaintzako Programa zela eta. Osalaneko ordezkariak arlo honi dagokionez planteatu zuten Nafarroa CANO taldean sar zedin. CANO taldeak Kantauri aldeko autonomia erkidegoak (Galizia, Asturias, Kantabria eta EAE) biltzen ditu, eta arrantzaren arloarekin lotutako lan arriskuak direla-eta hasi zen lanean. Gero beste, gai batzuetara zabaldu da haren lana; besteak beste, lehen sektoreko gaietara.

Canteras 22, 6.a U	ANTSOAIN	GOBERNUA	SANTA LUCÍA 2016ko deialdia	36/2016 FORU AGINDUA, urtarrilaren 27koa
Oriz 9, 2.a G	NOAIN	GOBERNUA	SANTA LUCÍA 2016ko deialdia	36/2016 FORU AGINDUA, urtarrilaren 27koa
Ezperu 8, 1.a C	NOAIN	GOBERNUA	SANTA LUCÍA 2016ko deialdia	36/2016 FORU AGINDUA, urtarrilaren 27koa
Oianondoa 4, 4.a E	BERRIOZAR	GOBERNUA	ANTOX	36/2016 FORU AGINDUA, urtarrilaren 27koa
Oianondoa 8, 1.a G	BERRIOZAR	GOBERNUA	SANTA LUCÍA 2016ko deialdia	36/2016 FORU AGINDUA, urtarrilaren 27koa
Amparo Toro 4, behea B	IRUÑA	GOBERNUA	SANTA LUCÍA 2016ko deialdia	36/2016 FORU AGINDUA, urtarrilaren 27koa
Ortiz de Landázuri doktorea 7, 5.a B	IRUÑA	GOBERNUA	SANTA LUCÍA 2016ko deialdia	36/2016 FORU AGINDUA, urtarrilaren 27koa
Ortiz de Landázuri doktorea 7, 6.a B	IRUÑA	GOBERNUA	SANTA LUCÍA 2016ko deialdia	36/2016 FORU AGINDUA, urtarrilaren 27koa
Zalduko Plaza 1, 1.a A	IRUÑA	GOBERNUA	Obretan	27/2017 FORU AGINDUA, urtarrilaren 17koa
Ibia 31, 1.a B	SARRIGUREN	GOBERNUA	Obretan	27/2017 FORU AGINDUA, urtarrilaren 17koa
Ibia 16, 1.a A	SARRIGUREN	GOBERNUA	Obretan	27/2017 FORU AGINDUA, urtarrilaren 17koa

BESTERIK

Deskribapena	Herria	Jabetza	Entitatea
Bartolomé de Carranza 66, 1.a H	IRUÑA	GOBERNUA	Obretan
Nagusia 78, 1.a A	LIZARRA	GOBERNUA	LIZARRAKO UDALA

8. zerrenda NAFARROAKO GOBERNUAREN TITULARITATEKO ETXEBIZITZETARAKO LURZORUA (2017)
Foru Komunitateko etxebizitzetarako lurzati normalizatuak

LURZATIA	KOKAPENA	LURSAILAREN EGOERA
1. lurzattia	Noain	Urbanizatua
2. lurzattia	Noain	Urbanizatua
3. lurzatiaren % 61,28	Noain	Urbanizatua
4. lurzattia	Noain	Urbanizatua
5. lurzattia	Noain	Urbanizatua
39. poligonoko 432, 433, 45, 437, 8005 lurzatiak	Tafalla A.R.1	Urbanizatu gabe
San Frantzisko kalea	Tutera	Urbanizatua
Higuera kalea	Tutera	Urbanizatua
Indibisoan, % 38 P5	Mugartea (Aranguren)	Urbanizatua

Lurzoru Publikoaren Foru Bankuari lurzatiaren udalez gaidiko lagapena Lurzoru Publikoaren Foru Bankua

LURZATIA	KOKAPENA	LURSAILAREN EGOERA
3. poligonoko 2013. lurzattia	Altsasu S-3	Urbanizatua
1. poligonoko 1023. lurzattia	Aranguren (Entremutilvas)	Urganizatua, proiektuarekin
2. poligonoko 1985. lurzattia	Aranguren (Entremutilvas)	Urganizatua, proiektuarekin
2. poligonoko 1274. lurzattia	Aiegi	Urbanizatua
UE2ko 1.3 lurzattia	Barañain	Urbanizatu gabe
18. poligonoko 1163. lurzattia	Berriozar - Artiberri	Urbanizatua
15. poligonoko 414. lurzattia	Eguesibar Erripagaña	Urbanizatua, proiektuarekin
15. poligonoko 183. lurzattia eta 14. poligonoko 556. lurzattia	Eguesibarra Sarriguren	Urbanizatua
1. poligonoko 520. lurzattia	Lizarra Ibarra	Urbanizatua
3. poligonoko 2181. lurzattia	Lizarra Zaldu	Urbanizatua
Udalez gaidiko plan sektorialeko PF1, PF2, PF3, PF4	Galar Cordovilla (Donapea)	Urbanizatu gabe
1. poligonoko 1109. lurzattia	Mañeru	Urbanizatua
UE6ko DS lurzattia	Mendigorria	Urbanizatua
1. poligonoko 805. lurzattia	Milagro	Urbanizatua
314. lurzattia	Milagro	Urbanizatua
P-9 lurzattia ur 6	Monteagudo	Urbanizatua
5. poligonoko 2544. lurzattia	Iruña Erripagaña	Urbanizatua, proiektuarekin
1. poligonoko 1516. lurzattia	San Adrián	Urbanizatua
6. poligonoko 1882. lurzattia	Viana	Urbanizatu gabe
6. poligonoko 418. lurzattia	Viana	Urbanizatu gabe
6. poligonoko 1801. lurzattia	Viana	Urbanizatua
2. poligonoko 2086. lurzattia	Ardoi, Zizur Nagusia	Urbanizatua, proiektuarekin
2. poligonoko 2093. lurzattia	Ardoi, Zizur Nagusia	Urbanizatua, proiektuarekin
2. poligonoko 2104. lurzattia	Ardoi, Zizur Nagusia	Urbanizatua, proiektuarekin
27. poligonoko 415. lurzattia	Zubiri	Urbanizatua
Zenbait lurzati	Zizur Galar (Gendulain)	Urbanizatu gabe
Zenbait lurzati	AHTa, Done Jakue Bidea, Zizur, Barañain	Urbanizatu gabe
BF1 lur-zatia	Mugartea (Aranguren)	Urbanizatua
BF2 lur-zatia	Mugartea (Aranguren)	Urbanizatua
BF3 lur-zatia	Mugartea (Aranguren)	Urbanizatua
B1 lur-zatia	Tutera (Gardachales)	Urbanizatu gabe

9-17/PES-00032 galderari dagokionez, hartatik Nasunvinsari dagokion zatiaren erantzuna ematen dugu (2. atala):

Nasunvinsa errentamendurako 33 etxebizitza-sustapenen titularra da, guztira 967 etxebizitza dituela, nagusiki Iruñean eta Iruñerrian (873), Tuteran (86), Eugin (4) eta Uztarrozen (4). Gaur egun, etxebizitza horien okupazioa % 98koa da; gainerako % 2a maizterra joan eta ondoren errepasatzen ari diren etxebizitzak dira, edo eskaintzen ari direnak eta kontratua sinatzea edo bisatzea baizik falta ez dutenak. Sustapen horien barruan, erosteko aukera jasotzen duen alokairuko bat edo beste badaude, zeinak 5 urte iragan ondoren eskriturazten hasi baitira.

Etxebizitza horien kudeaketa Navarra de Suelo y Vivienda-ri baizik ez dagokio; izan ere, azken hori da maizterrekin kontratuak sinatzen dituen, hileror ordaindu beharrekoaren gutuna igortzen diena, kasuko diru-laguntzak eskatzen dituen eta abar, zeren eta bera baita etxebizitzen titularra.

Gainera, Navarra de Suelo y Vivienda, 92/2014 Foru Aginduaren indarrez, Etxebizitza Sozialerako Nafarroako Funtsaren administratzailea da. Etxebizitza Sozialerako Nafarroako Funtsa abenduaren 16ko 89/2014 Foru Aginduaren bitartez sortu zen, etxebizitzaren arloko jarduketara babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013

Foru Dekretuan ezarritakoa garatuz. Foru Funtsaren helburua da “ izateko arriskuan egon eta babes publikoa behar dutenei laguntzea...”

Gaur den egunean (2017ko otsaila) guztira **98 etxebizitzak** osatzen dute funts hori; horietatik 13 Iruñeko Udalaren jabetzakoak dira. 21 etxebizitza Nafarroako Gobernuaren bidezainen eraikinarekin hasi zen proiektu pilotuari dagozkio (Navarra de Suelo y Vivienda-ri atxikitako eraikina da), eta gainerako 64ak, berriz, Navarra de Suelo y Vivendarenak (45) edo Nafarroako Gobernuarenak (19) dira.

Kudeaketari dagokionez, etxebizitza horietatik 35 hainbat entitateri laga zaizkio, alokairuan (25) nahiz prekarioan (10). Lehenengo kasuan, entitateek logela bakoitzeko 100 euro ordaintzen dituzte, eta prekario kontratuetan, berriz, etxebizitzaren doako erabilera eskualdatzen da, hura konpontzearen eta kontratua amaitzen denean baldintza onetan itzultzearen truke.

Bidezainen 21 etxebizitzak eta beste 21 etxebizitza gehiago itundu izan dira Adsis Santa Lucía fundazioak kudeatu ditzan. Aukera hori Etxebizitza Sozialerako Nafarroako Funtsa ezarri zuen 89/2014 Foru Aginduaren 7. artikuluan jasota dago. Beste 8 etxebizitza badaude edo atxiki berriak direnak, edo egokitze nahiz adjudikatzeko prozesuan dasudenak.

Entitateak	Kudeaketa	Etxebizitza kop.
ANASAPS (Nafarroako Adimen-osasunerako Elkartea)	alokairua	1
ANFAS (Haur eta Gazteen Garapenerako Zentroa)	alokairua	1
ANTox	alokairua	1
Down Sindromearen Nafarroako Elkartea	alokairua	1
Berriozarko Udala	alokairua	2
Ezkabarteko Udala	prekarioan	1
Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiko Cáritas	prekarioan	3
Padre Menni Klinika Psikiatrikoa	alokairua	2
Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea (CEAR)	alokairua	6
Espainiako Gurutze Gorria	alokairua	7
Gizakia Herritar Fundazioa/Paris 365	alokairua	2
Gizakia Herritar Fundazioa/Paris 365	prekarioan	1
Ilundaingo Haritz Berri Fundazioa	alokairua	1
Santa Lucia-Adsis Fundazioa	prekarioan	5
Santa Lucia-Adsis Fundazioa	alokairua	1

ETXEBIZITZA BERRI BUKATUAK

Bestetik, Nasunvinsa, gaur den egunean, sale-rosketa-araubidean sustatu dituen eta gaur egun adjudikatzeke dauden 39 etxebizitza babesturen jabea da. Horietatik 6 Iruñean daude, 4 Altsasun, 18 Agoitzen, 4 Tuteran eta 1 Uztarrozen. Hauxe da haien kokapena:

ALTSASU

Erlategi 4, behea A

Erlategi 4, behea B

Erlategi 4, behea C

Erlategi 4, behea D

AGOITZ

Irindegia urbanizazioa 1, 1.a A

Irindegia urbanizazioa 1, 1.a B

Irindegia urbanizazioa 1, 1.a C

Irindegia urbanizazioa 1, 2.a A

Irindegia urbanizazioa 1, 2.a B

Irindegia urbanizazioa 1, 3.a A

Irindegia urbanizazioa 1, 3.a B

Irindegia urbanizazioa 1, 3.a C

Irindegia urbanizazioa 1, 4.a A

Irindegia urbanizazioa 1, 4.a B

Irindegia urbanizazioa 2, 1.a A

Irindegia urbanizazioa 2, 1.a B

Irindegia urbanizazioa 2, 1.a D

Irindegia urbanizazioa 2, 2.a A

Irindegia urbanizazioa 2, 2.a B

Irindegia urbanizazioa 2, 3.a A

Irindegia urbanizazioa 2, 3.a B

Irindegia urbanizazioa 2, 4.a B

TUTERA

San Antón 8, 2.a A

San Antón 8, 3.a A

Carnicerías 14, 2.a A

Carnicerías 14, 2.a B

UZTARROZE

Zabalea auzoa 7, 1.a A

BUZTINTXURI

Ventura Rodríguez 28, 1.a A

Ventura Rodríguez 28, 3.a A

Ventura Rodríguez 28, 3.a B

Ventura Rodríguez 5, 1.a A

EZKABA

Gurutze Gorria 8, 1.a B

Gurutze Gorria 8, 2.a A

BIGARREN ESKUKO ETXEBIZITZAK

Halaber, Nasunvinsa, gaur egun, gaur egun adjudikatzeke dauden 30 etxebizitza erabiliren jabea da. Horietatik 27 Iruñerrian daude, 1 Oibarren, 1 Tuteran eta beste bat Oteitzan. Hauxe da haien kokapena:

SARRIGUREN

Garajonai 43, 1.a E

Espainia Etorbidea 2, behea A

Garajonai 43, 1.a - 2.a A

Urederra iturburua 6, 1.a A

Ibia 35, 1.a B

Champagnat pasealekua 9, 3.a B

Uralar 5, behea A

Urederra iturburua 1, 2.a C

Ibia 7, 1.a B

Champagnat pasealekua 7, 3.a B

BERRIOZAR

Nafarroako Odol-emaileen plaza 9, 4.a C

Etxa burua 12, 2.a C

Iturkoa 3, 3.a E

IRUÑA

Ventura Rodríguez 69, 3.a B

Tiburcio Redin 13, 4.a C

Santos A. Ochandategui 32, behea B

Ramón Aguinaga 22, behea D

Ramón Aguinaga 30, behea eskuin

Etxalazko jaurerria 8, 1.a B

Olaz Kontzejua 24, 3.a A

Gorraiz Kontzejua 8, 2.a E

Arga Ibaia 24, 2.a B

BERRIOBEITI

Paseo del Cierzo pasealekua 9, 3.a A

BURLATA

Konstituzio Plaza 5, 4.a A

OTEITZA

San Salvador 5

AIBAR

Jaminduriz Auzoa, 13

TUTERA

Javier Garijo Satrustegui 8, 1.a ezk.

ZIZUR NAGUSIA

Santa Cruz De Ardoi 5, 4.a B

UHARTE

Padre Pérez Goyena 14, behea eskuin

BARAÑAIN

Ezkien Plaza 4, 14.a B

Bai etxebizitza erabilien kasuan, bai etxebizitza berriarenean, adjudikazio-prozesua sozietate publikoak berak egiten du, eta Etxebizitza Babes-

tuaren Eskatzaileen Zentsuan ezarritako bideen bitartez egiaztatzen da babes-araubideren bat duten etxebizitzaren kasuan, eta zentsuaren beraren bitartez edo, egokiak diren merkaturatze-bideen bitartez, berriz, etxebizitza libreen kasuan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 20an

Jose M^a Aierdi Fernandez de Barrena, zuzendari kudeatzailea

Galdera, biztanleria aktiboaren gaineko azken inkestak direla-eta Eskubide Sozialetako kontseilariak aipatutako aldaketa metodologikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, biztanleria aktiboaren gaineko azken inkestak direla-eta Eskubide Sozialetako kontseilariak aipatutako aldaketa metodologikoei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos García Adanero jaunak galdera egin du Biztanleria aktiboaren gaineko azken inkestak direla-eta Eskubide Sozialetako kontseilariak aipatutako aldaketa metodologikoei buruz (9-17/PES-0033). Horri erantzuteko, Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariak Nafarroako Estatistika Institutuko zuzendari Pablo Cebrián Jiménezek egindako txostena igortzen dizu, eta honako hau ere informatzen dizu:

Bere garaian baieztatu zen bezala eta txosten hau irakurritz egiaztatu ahalko duzuen bezala, alderdi metodologikoei, zehazki Nafarroaren laginaren tamainarekin lotutako lagin-akatsetik eratorritako mugek, eragiten dute gorabehera edo alde atipikoak gerta daitezela; halakorik, ordea, ez da aurkitzen laginak handiagoak direnean. 3. irudian egiaztatu ahalko duzu, serie osoan bezalaxe, 2008tik hasi eta gaur arte, 2016ko hirugarren hiru-hilekoko biztanleria aktiboaren inkestan baizik ez dela gertatzen biztanleria landuna, biztanleria aktiboaren inkestaren arabera, txikiagoa izatea Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua baino; inguruabar hori, berriz, laugarren hiru-hilekoko zuzenduta dago, baieztatu zen bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos García Adanero jaunaren PES0033 galdera parlamentarioa dela-eta, honako hau informatu behar dugu:

– Biztanleria aktiboaren inkesta Estatistikako Institutu Nazionalaren eskumeneko inkesta bat da.

– Nafarroako Estatistika Institutuak eta Estatistikako Institutu Nazionalak informazioa elkarrekin trukatzeko akordio bat dute, non jasotzen baita biztanleria aktiboaren inkestako mikrodatuak Nafarroako Estatistika Institutuari lagatzea, Estatistikako Institutu Nazionalak egiten duena baino zabal-kunde handiagoa eman diezaion.

– Horretaz gainera, bi erakunde horien arteko harremanak badaude, eta egiten diren operazio garrantzitsuenei buruz informatuta daude.

– Nafarroako Estatistika Institutuak ez daki biztanleria aktiboaren inkestak azken urte hauetan aldaketa metodologikorik gertatu izana. Azken aldaketa garrantzitsua biztanleria-oinarriaren aldatari dagokiona da, 2011ko biztanleriaren eta etxebizitzaren errolden emantzetatik heldu dena. 2014an egin zen.

Gainera, informatu behar dugu, halaber, biztanleria aktiboaren inkestarekin eta lan merkatuarekin lotutako beste estatistika iturri batzuekin zerkusia duten gai batzuei buruz, okupazioaren gaineko datuak interpretatzeko interesgarri gerta daitezkeelakoan.

2016ko laugarren hiru-hilekokoan Nafarroarako lagin efektiboa 1.359 etxebizitzarena da, zeinetan 3.295 pertsona bizi baitziren. Ikusten da lagin hori txikiagoa dela 2014koa baino, baina ez da aldaketa metodologikorik egin.

Hiruhilekoa	Pertsonak	Etxebizitzak
4/2014	3.778	1.501
1/2015	3.830	1.521
2/2015	3.693	1.471
3/2015	3.588	1.445
4/2015	3.522	1.414
1/2016	3.398	1.372
2/2016	3.279	1.327
3/2016	3.217	1.321
4/2016	3.295	1.359


Biztanleria aktiboaren inkesta, beraz, oinarrituta dago aldagai asko dituen eta Europako lanindarrari buruzko inkesten aldean homogenea den galdetegi batetik heldutako azterlan batzuetarako egokitzat jotzen den lagin batean. Hala ere galdetegi horrek aldagai jakin batzuk analizatzeko muga batzuk badauzka, tamainari dagokion lagin-akats batetik heldutakoak, eta arretaz erreparatu behar zaio horri guztiari.

Nafarroako laginaren tamaina dela-eta gorabehera edo alde atipiko batzuk badaude, lagin handiagoak hartuta –Espainiarena, esate baterako– gertatzen ez direnak, edo erregistro administrati- boetan –Gizarte Segurantzaren afiliazioa, esate baterako– oinarritutako iturrietatik heldutako


datuekin gertatzen ez direnak, hurrengo irudietan ikus daitekeen bezala.

Kontu hori ez da gertatzen soilik biztanleria aktiboaren inkestan, baizik eta koiunturako iturri guztietan, eta zail egiten du ebaluatzea gorabeherak laginarekin zerikusia duen akats bati ala egitate errealei dagozkien; izan ere, egitate errealean, Nafarroaren tamaina dela eta, gai puntual baten eraginak garrantzi handixkoa izan dezake. Hori dela eta, Nafarroako Estatistika Institutuak egiten duen koiunturako analisiak, esate baterako Nafarroaren Hiru Hilabeteko Kontabilitaterako, zenbait iturri estatistiko erabiltzen ditu zenbatesten duen agregatu bakoitzeko, eta Gizarte Segurantzaren afiliazioa biztanleria aktiboaren inkestaren osagarri garrantzitsu bat da.

1. irudia. Biztanleria aktiboaren inkestaren arabera Nafarroan eta Espainian dauden landunak (urtetik urterako aldea)



2. irudia. Gizarte Segurantzaren afiliatuak eta biztanleria aktiboaren inkestaren arabera dauden landunak Nafarroan (urtetik urterako aldea)



Irudi hauetan egiazta daiteke biztanleria aktiboaren inkestako landunen sailak alde oso nabarmena erakusten duela; halakorik ez da gertatzen, ordea, intentsitate berarekin, gainerako iturrietan, eta horrek koiunturako analisia nahas dezake. Gorabehera horiek zabalagoak izan dira azken urtean, zeinean, bigarren hiruhilekoan landunen kopuruaren jaitsiera oso nabarmena izan ondoren, intentsitate aipagarriko igoera batzuk izan baitira –horiek ere atipikotzat jo daitezke–.

Halaber, bigarren hiruhilekoan egitate garrantzitsu bat gertatu da lan-merkatuaren adierazleen analisian; esate baterako, Gizarte Segurantzaren afiliazioa handiagoa izatea biztanleria aktiboaren inkestako okupazioa baino. Gai hori Estatistikako Institutu Nazionalarekin landu zen, eta hark datua lortzeko prozesuak berrikusi eta ez zuen inongo akatsik aurkitu, laginaren tamainari berari datuekionetatik heldutakoak izan ezik.

Gizarte Segurantzaren afiliazioak eta biztanleria aktiboaren inkestako landunek, bestelako datuak lortzeko metodologiak izateaz gainera –bata erregistro administratibo bat da eta bestea inkesta bat–, definizio desberdinak ere badituzte.

Hartara, biztanleria aktiboaren inkestako landunen zenbatekoa 16 urte edo gehiago izan eta erreferentziako astean gutxienez ordubetez ordainsari baten truke (lansaria, eguneko saria, enpresa-onura eta abarrekoak), dirutan nahiz espeziean, lan egin duten pertsonen dagokie.

Afiliazioaren datu horrek altan dauden langileak hartzen ditu (ez dira kontuan hartzen langabeak eta ikasleak), eta horregatik sistema publikorako kotizatu behar dute, gutxienez erretiro, baliaezintasun eta heriotza egoerarako babesa izateko.

Honako hauek izan daitezke iturri estatistiko horien artean dauden alde garrantzitsuenak:

- Lege-aldaketek eragina izan dezakete afiliazioaren fitxategian (esate baterako ordu kopuru jakin bat egiten duten langileak afiliatzeko betebeharra; esate baterako, etxeko langileak).


- Alegiazko kotizazio-ordaintzaile batzuk ere badaude, etorkizunean erretiro-pentsio bat lortzea edo langabeziako sorospena jasotzeko eskubidea izatea bilatzen dutenak.

- Biztanleria aktiboaren inkestaren arabera lana duten pertsona batzuk badaude Gizarte Segurantzari kotizatzeko betebeharrak ez dutenak; familia-laguntza batzuen kasua da (langile horiek Gizarte Segurantzaren egon behar dute soilik ohiko, funtsezko eta zuzeneko moduan lan egiten dutenean). Halaber, pertsona batzuek afiliatuta egon beharra daukate, baina ez daude.

- Afiliazioaren fitxategiak ez ditu jasotzen beren mutualitateei afiliatuta dauden funtzionarioak, Gizarte Segurantzaren sistemako araubideren batean sartzea determinatzen duen beste jarduerarik ez badute.

Funtsean, azken inguruabar hori dela eta, biztanleria aktiboaren inkestako landunen kopurua handiagoa da Gizarte Segurantzako afiliatuena baino, 2016ko bigarren hiruhileko horren salbuespenarekin; izan ere, hiruhileko horretan, afiliazioaren igoerarekin batera landunen beherapena etorri zen, eta horrek eragin zuen lehenengo aldiz afiliazioaren datua handiagoa izatea biztanleria aktiboaren inkestako datua baino. Denborazko serie batean, gisa horretako egitate batek hurrengo hiruhilekoetan dauzka ondorioak, eta horrek berekin dakar urte arteko aldean profilak etengabe igoerak eta beherapenak izatea, koiunturako analisia zailago egiten dutenak.

3. irudia. Biztanleria aktiboaren inkestaren eta Gizarte Segurantzaren afiliazioaren arteko alderaketa (pertsonek, milakotan)



Horrenbestez,

– Biztanleria aktiboaren inkestan ez da aldaketa metodologikorik izan azken urteetan.

– Afiliazioaren eta biztanleria aktiboaren inkestako okupazioaren arteko korrelazio bat badago, baina ez dituzte egitate berak neurtzen; horrenbestez, garrantzitsua da iturri desberdinak aztertea koiunturako analisia egitean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 22an

Nafarroako Estatistika Institutuko zuzendaria
Pablo Cebrián Jiménez

Galdera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Foru Legea garatzeko planean jasotako ardatz estrategiko bakoitzerako esleitutako aurrekontuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana San Martín Aniz andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Foru Legea garatzeko planean jasotako ardatz strate-

giko bakoitzerako esleitutako aurrekontuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana San Martín andreak idatzizko galdera egin du, jakin nahi baitu zein den 14/2015 Foru Legea garatzeko planaren ardatz estrategiko bakoitzaren aurrekontua (9-17/PES-00034). Haxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago ekintza plana egiteko unean jaso ziren aurrekontuzenbatekoak haren garapenerako egindako aurrekontuzenbatespenak izan zirela.

Orain igorritako dokumentazioak, jada onetsita dagoen aurrekontua ere baduenak, kontu-sail errealen arabera informazioa jasotzen du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Agora sisteman.)

Galdera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Foru Legeak garatutako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana San Martín Aniz andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko Foru Legeak garatutako neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana San Martín

andreak idatzizko galdera egin du 14/2015 Foru Legea garatzeko planaren barruan egindako jarduketan xehetasunei buruz (9-17/PES-00035). Haxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Agora sisteman.)

Galdera, hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planean errefus-zatiari ematen zaion tratamenduari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Carmen Segura Moreno andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planean errefus-zatiari ematen zaion tratamenduari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mari Carmen Segura Moreno andreak ondoren azaltzen den galderari idatziz erantzuteko eskatu du, eta ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren erantzuna. Honako hauei buruzko informazioa eskatu du: "Hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planak ez du jasotzen izaera publikoko azpiegitura berririk paratzea errefusaren aurretratamendurako; izan ere, aurreikuspenen arabera, 2014an sortu zenaren erdira jaitsiko da errefusa, eta planaren arabera Tuterako eta Carcarko plantak nahikoa dira Nafarroan sortzen den errefus guztia tratatzeko.

Horrek esan nahi du planta horietara eramaten dela Nafarroa osoko errefusa –Iruñeko barne–, plan horren arabera hain garrantzitsua den gertutasun-printzipioa urratuz?

Zer beste aukera aintzat hartzen dira Iruñerriko errefuserako?

Zer beste aukera aintzat hartzen dira errefuserako, hori behar bezala tratatua ez deneko hondakin-mankomunitateetan?

Zer epe darabiltzate aukera horiei dagokienez?" (9-17/PES-00036). Hona hemen kontseilariaren erantzuna:

Egindako galdera:

Horrek esan nahi du planta horietara eramaten dela Nafarroa osoko errefusa –Iruñeko barne–, plan horren arabera hain garrantzitsua den gertutasun-printzipioa urratuz?

Erantzuna: 2027ko Planak jasotzen du kudeaketa-aukera baten alde egitea sortutako errefusaren % 100 tratatzeko, birziklatzea eta material eta materia organikoen balorizatzeko materiala ahal den gutzian bultzatuz, halako moduz non isuri aurretik tratatuko baitira.

Jarduketa hori, gainera, bat dator 2020rako sektore lausoen ibilbide-orriaren ildoarekin, zeren eta sektore lausoen jaulkipenak gehien bat hondakinak zabortegetan pilatzearen ondorioz sortzen baitira.

PEMAR 2016-2022 delakoan ezarritakoarekin ere bat badator, bai eta Nafarroako errefusetarako plantetan egindako auditorietan lortutako emaitzekin ere. Izan ere, gaiak berrerabiltzerako eta birziklatzerako prestatzeko helburuak lortzeko datozen urteetarako ahaleginak bideratu behar dira bereizita jasotzen diren hondakinen kopuruak nabarmen handitzera, hondakin nahastuen kopurua gutxituz, zeren eta azken horiek birziklatzerako egiten duten ekarpena askoz ere txikiagoa baita, haietatik lortzen diren materialak kalitate askoz ere txikiagoak izatearen ondorioz.

Planak ez du jasotzen izaera publikoko azpiegitura berririk paratzea errefusaren aurretratamendurako; izan ere, aurreikuspenen arabera, 2014an sortu zenaren erdira jaitsiko da errefusa, eta planaren arabera Tuterako eta Carcarko plantak nahikoa dira Nafarroan sortzen den errefus guztia tratatzeko). Hori dela eta, Planean jasota dago Iruñerrian transferentzia planta berri bat egitea, dela lehendik dauden instalazioetan, dela kokaleku berrietan, errefusa planta horietara eramaten bada.

Aukeran, planta bat egin liteke Iruñerrian, zeren eta Nafarroako biztanleriaren erdia baino gehiago bertan bizi baita, horrekin lotuta dagoen beste tratamendu-planta batzuetarako garraioa saiheste aldera.

Hori guztia dela eta, Nafarroako Hondakinen 2017-2027 aldirako Planak autosufizientzia eta hurbiltasun printzipioa aplikatzen du, 22/2011 Legearen 9. artikuluan eta 2016-2022 aldirako Hondakineterako Estatuko Esparru Planean ezarri bezala, zeren eta gaur egun gisa horretako hondakinak tratatzeko dauden plantak (autosufizientzia), hurbilen daudenak (hurbiltasuna), Tuterakoa eta Carcarkoa baitira, eta horiek, aldakuntzarik egin gabe edo egiteko modukoak diren mudantza

txiki batzuekin, aipatutako epean gauza izan daitezke Iruñerrian sortutako errefusak jasotzeko. Halere, Planean bertan aipatzen denez, aukeran planta bat egin liteke Iruñerrian, arestian adierazitako arrazoiak direla eta.

Hori guztia Planaren barruan aurreikusitako ekintzetan jasotzen da, 6.74 eta 6.166 tauletan, biak ere 6. kapituluaren barruan:

A.R.05.29.56	Egun dauden instalazioak egokitzea Nafarroa osoko errefusa jasotzeko eta, kasua bada, aukeran, Iruñerrian errefusa tratatzeko planta berri bat egin dadin sustatzea.
--------------	--

ERREFUSA	EGUN DAUDEN PLANTAK (kudeaketa publikoa)	2	CARCARKO HONDAKINAK TRATATZEKO ZENTROA CULEBRETEKO HONDAKINAK TRATATZEKO ZENTROA
	PLANTA BERRIA, AUKERAN (kudeaketa publikoa)	1	IRUÑEKO ESKUALDEA

Egindako galdera:

Zer beste aukera aintzat hartzen dira Iruñerriko errefuserako?

Erantzuna: Hondakinen Planaren zirriborroan eta haren eranskinetan, ordezkoko aukera batzuk planteatu ziren errefusaren tratamendurako; esate baterako, biolehortearen bidezko tratamendu biologiko mekanikoa, autoklabea eta txandakako bioerreaktoreak, zeinak aholkatzen baitira zuzenean errefusa tratatzeko, gai organikoaren eta beste material batzuen balorizatzea areagotzeari begira. Nafarroarako proposatutako kasuan, aintzat hartu zen tratamendu biologiko mekanikoa dela egokiena gai organiko gutxien daukan errefusa tratatzeko, zeren eta hori gehien bat gaikako bilketan bereizi baita, halako moduz non lehenengo gai hori egonkortzen baita eta aukera ematen baita gero bertan dauden gainerako material birziklagarriak bereizteko.

Horrekin guztiarekin, Planak jotzen du beharrezkoa litzatekeela transferentzia planta bat egitea, sortutako errefusa planta horietara bidaltzeko. Hala eta guztiz ere atea irekita uzten da, aukeran, dauden ordezkoko bideen azterlana egin ondoren, errefuserako planta bat eraiki dadin (tratamendu biologiko mekanikoa egiteko, aurreko lerrokadan aipatu den bezala), Iruñerrian. Planta horrek egokia izan beharko luke planean aurreikusitako errefusen sorkuntzaren dimentsioei aurre egiteko. Ins-

talazio hori AR 05.28.53 ekintzaren barruan aipatzen da. Iruñerrian errefusaren tratamendurako planta berri bat egin dadin sustatzea, 5 urteko kronograma bat ezarriz, hura guztiz egin eta abian jarri arte.

Halaber, ekintza horiek Planeko aurrekontuaren 8. kapituluan jasota daude.

Inbertsioetako gastuak

Hondakinen Plana garatzeko aintzat hartutako inbertsioek 55.401.000 euro egiten dute 2017-2027 aldi osorako, kontuan hartuta Iruñerriaren inguruan aukeran ezar litezkeen azpiegitura berriak: Transferentzia-planta, hondakindegia eta errefusa tratatzeko planta; horien guztien kasuan, egiteko daude haiei buruzko aukeren azterlanak.

Iruñerriaren inguruan aukeran ezar litezkeen azpiegitura berriak jaso dira: Transferentzia-planta, hondakindegia eta errefusa tratatzeko planta; guztiek ere egiteko dauzkate haiei buruzko aukeren azterlanak.

Egindako galdera:

Zer beste aukera aintzat hartzen dira errefuserako, hori behar bezala tratatua ez deneko hondakin-mankomunitateetan?

Erantzuna: Aurreko puntuen erantzunetan aipatutako bereak.

Egindako galdera:

Zer epe darabiltzate aukera horiei dagokienez?

Erantzuna: O.R.05 Planaren helburuan, M.R.05.29 neurri elkartuan eta A.R.05.29.56 ekin-tzan, ordezkoko aukera horietarako ezarritako epeak aipatzen dira.

Etxeetako hondakinak balorizatzea eta saltokietako birziklatzea eta	Helburuaren kodea	deskribapena	2010	2014	2017. helburua.
Errefusa (hondakin nahasiak)	O.R.05	Errefusaren tratamendua	38%	43%	% 100, 2017-12-31 baino lehen

Ekintzaren kodea	deskribapena	2017	2018	2019	2020	2022
A.R.05.29.56	Egun dauden instalazioak egokitzea Nafarroa osoko errefusak jasotzeko eta, kasua bada, aukeran, Iruñerrian errefusa tratatzeko planta berri bat egin dadin sustatzea. Halaber, instalazio horiek egokitu eta hobetu behar dira haien efizientzia handitzeko tratatu beharreko zatiki guztietan, hartara birziklatzean aurreikusitako emaitza onenak lortzeko.	X	X	X	X	X

Halaber, instalazio horiek egokitu eta hobetu behar dira haien efizientzia handitzeko tratatu beharreko zatiki guztietan, hartara birziklatzean aurreikusitako emaitza onenak lortzeko.

Halaber, aditzera ematen dizugu Nafarroako Hondakinen Planari buruzko informazio guztia honako esteka honetan daukazula:

http://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Residuos/Plan+de+residuos.htm

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, hondakinak instalazio txiki eta ertainetan balorizatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Carmen Segura Moreno andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, hondakinak instalazio txiki eta ertainetan balorizatzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mari Carmen Segura Moreno andreak ondoren azaltzen den galderari idatziz erantzuteko eskatu du, eta ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren erantzuna. Honako hauei buruzko informazioa eskatu du 2017-2027 hondakin plan delako eta: "Ados al zaudete hondakinak instalazio txiki eta ertainetan balorizatzearekin? Ados al zaudete hondakin

arloan beste erkidego batzuekin lankidetzan ari zirekin? Baiezkoan, zehaztu zein alderditan eta zein erkidegorekin?" (9-17/PES-00037). Hona hemen kontseilariaren erantzuna:

Egindako galdera:

Ados al zaudete hondakinak instalazio txiki eta ertainetan balorizatzearekin?

Erantzuna: Planak, birziklatzerako helburu estrategiko gisa, jasotzen du kalitate handiko bilketa selektibo baterantz aurrera egin beharra dagoela, azken horren bidez hondakin leheneratzea eta birziklatzea ahal den guztian lortzeko eta haien sorkuntzan baterako erantzukizuna bermatzeko (herritarrak, enpresak eta abar), kudeaketarako ohiko bideetatik eta prozesatzerako sortzen ari diren bide berrietatik, bereziki etxeko hondakin biologikoetarako eta hondakin industrialetarako. Horretarako, beharrezkoa izanen da izaera publikoko azpiegituren zuzkida, kostu txikikoa eta hurbilekoa, nahikoa izatea etxeko hondakinak (hondakin biologikoak eta abar) tratatzeko, bai eta egun dauden tratamendu-instalazioetan efizientzia handitzea ere:

<p>OE.06 GAIKAKO BILKETA ETA BIRZIKLATZ EA</p>	<p>Kalitate handiko bilketa selektibo baterantz aurrea egitea, azken horren bidez hondakin leheneratzea eta birziklatzea ahal den guztian lortzeko eta haien sorkuntzan baterako erantzukizuna bermatzeko (herritarrak, enpresak eta abar), genero-berdintasunaren printzipioa kontuan hartuta, kudeaketarako ohiko bideetatik eta prozesatzerako sortzen ari diren bide berrietatik, bereziki etxeko hondakin biologikoetarako eta hondakin industrialetarako. Horretarako, beharrezkoa izanen da izaera publikoko azpiegituren zuzkidura, kostu txikikoa eta hurbilekoa, nahikoa izatea etxeko hondakinak (hondakin biologikoak eta abar) tratatzeko, bai eta egun dauden tratamendu-instalazioetan efizientzia handitzea ere:</p>
--	--

Hurbiltasunaren eta kostu txikiaren gai hori balorizatze azpiegituri buruz planean jasotako 6. kapituluaren garatzen da, hondakin kudeaketaren hierarkiaren hasieratik kontatzen hasita:

Berrerabiltzerako prestatzea

"Helburu gisa planteatzen da Berriozarko Emausen Trapuketarien zentroa finkatzea prebentziorako eta gaiak berrerabiltzerako prestakuntzako zentro gisa, eta eredu hori Nafarroako beste herri batzuetara hedatzeko aukera aztertzea, betiere merkatu askea, lehia zuzena eta aukera-berdintasuna errespetatuta.

6.10.1 atalean, berrerabiltzerako prestatzeko planta berri hori jasotzen da, Hondakin Planeko azpiegitura gisa:"

Birziklatzea eta balorizatzea

Hondakin biologikoak.

"Zatik honen tratamendua lehendik dauden kudeaketa publikoko zentroetan egin liteke; esate baterako, Carcarko eta Culebreteko hondakinak tratatzeko zentroetan. Izan ere, zentro horietan behar diren aldaketak eginen dira jaso behar dituzten hondakin motari eta kopuruari egoki-

tzeko. Culebretoko Hondakinak Tratatze Zentroaren kasuan, behin gaika bildutako gai organikoaren masa kritiko nahikoa lortuta, aztertuko da aukerarik badagoen egun dagoen digestorea zatiki hori tratatzeko erabil dadin, errefuserako erabili partez.

2027rako aurreikusi den hondakin biologikoen handitze horren aurrean, beharrezko ikusten da, gainera, tratamendurako azpiegitura publiko berriak, kostu txikikoak eta hurbilekoak ezartzea.

Jasota dago lau konpostatze planta publiko berri egitea honako esparru hauetan:

– Zangoza, Doneztebe eta Arbizu (planta bakoitzean urtean 3.000 t bitarte).

– Iruña (urtean 50.000 t bitarte).

Planta horiek egun dauden transferentzia plantetan ezar litezke, behar den espazioa jarritz.

Egun dauden edo/eta eraikuntza berrikoak diren plantetako tratamendua osatuko da etxeko eta komunitateko konpostatzearekin, Nafarroako toki batzuetan eskalako kudeaketa deitutakoarekin osatuta, non modu aktiboan parte hartu baitaiteke helburuak lortzeko –esate baterako nekazaritza eta abeltzaintza ustiategiak erabiliz–, bai eta transferentzia-estazioetan eta abarrekoetan konpost-planta publiko txikiak eginez ere. Jokabide horiekin beharrak asezer gero, ez da beharrezkoa izan aurreikusitako planta guztiak egitea”

Ontziak eta materialak.

“Tratamendurako azpiegiturei dagokienez, parte hartzeko prozesuaren emaitzei, kohesio sozialeko irizpideei eta tokiko enpleguari eusteari erreparatuta, Planak aurreikusten du egun dauden lau plantekin jarraitzea (Azkoien, Cárcar, Gongora eta Tuteran), jaso beharreko hondakin motaren eta kopuruaren arabera behar diren aldaketak eginez, baldin eta azkenean ontzietatik materialetarako trantsizioa egiten bada.

Mankomunitateen edukiontzi horiaren destino-ko planta karbono-aztarnaren analisiaren arabera finkatuko da, horrekin ebaluatuko baita garraioa ez ezik, plantaren beraren eragingarritasuna ere.

Egindako galdera:

Ados al zaudete hondakinen arloan beste erkidego batzuekin lankidetzan aritzearekin? Baiezkoan, zehaztu zein alderditan eta zein erkidegorekin?

Erantzuna. Hondakinen Planak ekintza batzuk ezartzen ditu, hondakinen prebentziotik eta optimizatzeetik hasi eta zoruen kutsaduraren jarraipenera eta kontrolera bitarte, betiere beste erkidego eta ente publiko batzuekiko lankidetzarekin lotuta, Planean ezarritako helburuak garatze alderara.

A.P.LE02.18	Nafarroako Foru Komunitateak ontzi horien prebentziorako Estatuko eta Europako lantalde, plan eta estrategietan parte hartzea.
A.P.LE02.21	SDDR-Biltegi, Itzulera eta Bihurtze Sistemen inguruko esperientziak garatzea, esperientzia horren emaitzen eta antzeko beste esperientzia batzuen emaitzen ildotik gaiari buruzko posizio bat finkatzeko, horren barne dela beste autonomia erkidego edo ente publiko batzuekin hitzarmenak egitea, gai horretan aurrera egiteko.
A.P.LE05.43	Ekoinerentzia, elkarrekin eta ukitutako beste agente batzuen arteko lan-mahaiak ezartzea, sektoreka akordioak eta neurriak ezartzeko, hain zuzen ere hondakinen prebentzioa bultzatzeko eta hondakinen kudeaketa optimizatzeke.

Jarraipena eta kontrola

A.SyC.01.07	“Lurzoru kutsatuei eta erreferentziako maila orokorreari buruzko berariazko arau-garapena Administrazio publikoen arteko informazioa eta koordinazioa trukatzeko mekanismoak hobetzea, bereziki ministerioarekin, autonomia erkidegoekin, konfederazioekin eta jabetza-erregistroekin.
-------------	---

Enplegua

A.EM.01.04	Beste administrazio publiko batzuekin koordinatuta, enpleguaren sustapena eta pertsona horien gizarteratzea sustatzea, kolektiboan tokiko elkarteekin lan eginez.
------------	---

Halaber, aditzera ematen dizugu Nafarroako Hondakinen Planari buruzko informazio guztia honako esteka honetan daukazula:

http://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Residuos/Plan+de+residuos.htm

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, Tokiko Mapa Hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planarekin uztartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Carmen Segura Moreno andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tokiko Mapa Hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planarekin uztartzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mari Carmen Segura Moreno andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakin nahi baitu "Tokiko Mapa nola uztartuko den Hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planarekin" (9-17-/PES -00038). Hauxe da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Egindako galdera:

Tokiko Mapa nola uztartuko da Hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planarekin?

Erantzuna:

Planteamendu orokorra:

– Galdera orokorra denez, erantzuna ikuspegi orokor baten arabera egituratu dugu, non adierazten baitugu gure ustez zein izanen diren bi proiektuetan eragina izanen duten gaiak. Hala eta guztiz ere, foru parlamentari andreak ikusten badu gai zehatzen bat gehiago zehaztea nahi duela, beste galdera bat egin diezaioke departamentu honi, gaia argiro zehaztuta.

1. Bai Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako prozesua, bai 2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakinen Plana gure erkidegorako beharrian kontrastatu batetik abiatzen diren proiektuak dira, dagozkion sektoreetan, zeinek azterketa- eta kontsulta-esparru zabalak hartzen baitituzte; hain zuzen ere, horregatik zehazteko konplexuak dira eta haiei buruzko lengoaiak ere ezberdintasun nabarmenak daude, haietaz mintzatzen diren entitateen edo pertsonen arabera. Hori jarduketa-esparrua dela eta gertatzen da –Foru Komunitate osoa hartzen du–, eta, horrenbestez, horietako bakoitzari lotutako erakunde eta eragile ugari hartzen ditu; izan ere kontsulta egin zaie eta haien ekarpen eta eskariak aintzat hartu behar dira, behin aztertu ondoren.

2. Bitartean, Nafarroako Gobernuak jada onartu du Nafarroako 2017-2027 aldirako Hondakinen Plana, eta orain legeari buruzko parte-hartze eta lanketa prozesu bat hasiko da. Nafarroako Toki Administrazioaren erreformatarako prozesua, alabaina, partaidetza-fasean dago eta ondorioak ateratzeko daude; hori dela eta, epe ertainean zehaztuko dira behin betiko behar diren xehetasun guztiak. Orduan ebaluatu eta zuzendu ahalko dira, bidezkoa bada, bien artean egon daitezkeen kontraesanak; izan ere, orain arte ez ditugu detektatu. Aitzitik, departamentu honentzat, bi proiektuak elkarren osagarriak eta koordinatuak dira, eta haien amaieran –zein bere esparruan– funtsezko eginkizun bat beteko dute Nafarroako erakundearen ardatzak antolatzerakoan. Bi proiektuak departamentu berak koordinatuak izateak alderatze- eta ahokatzeko-lana errazten du.

Eskumenen eta gobernantzaren gaia:

"Nafarroako Toki Erreformatarako lerro nagusiak" agiriak aurreikusten du udalez gaindiko erakunde-

en kudeaketarako tokiko maila bat ezartzea, “eskualdea” deituko dena eta izaera funtzional eta lurraldekoa izanen dituen; izan ere, eskualdeak egungo mankomunitateak integratuko ditu. Eskualdeen eskumenak ezartzeko proposatzen du mankomunitatuta dauden zerbitzuen egungo eskaintzatik abiatzea; halere, oinarritzko hiru eskumen aipatzen ditu, zeinak Foru Legez esleituko baitira. Oinarritzko legeditik heldu ez diren beste eskumen batzuk eskuordetzeko edo hitzartzeko udal ahalmenarako inongo murriztapenik ez da ezartzen, ordea. Halaber, aurreikusten da eskualdeari esleitzea gaur egun Nafarroako Gobernuak betetzen dituen eskumenetako batzuk. “Lerro nagusiak” lantzeko agiri horrek proposatzen du foru legeak eskualdeari esleitzen dizkion hiru oinarritzko eskumen horietako bat hondakinena izatea.

Legez gerta daiteke udal batek, bere kontura, tratamendu zentro berekiak sortzea, betiere kasuko plan zuzendarian ezarritakoarekin bateragarriak badira, baina plangintza zuzendari horrek eta errealitate faktikoak erabat argiak dira horri buruz. Horren arrazoia da praktikan oso zaila dela udal batek bere kontura eta bere kargura sortzea tratamendu zentroak, egun Nafarroa osorako baliatzen direnen modukoak (bereziki, Carcar, Azkoi, Culebrete eta Gongorako zentroak). Haien funtzionamendua Nafarroako Gobernuak koordinatu behar du, eta horrekin berrmatuko du erkidego osorako balio dezatela; hori, halere, ez da eragozpena izanen gaur egun haien kudeaketan esku hartzen duten mankomunitateen oinordeko diren eskualdeek haiek kudeatu ahal ditzaten.

Hori dela eta, eskualdearen eskumen hori hondakin bilketara ere heda daiteke. Eta hori egin daiteke dela eskualdea sortzeari buruzko Foru Legean bertan, dela geroko eskualdeko banaketaren bitartez.

Proposamenak udalen eskumen bereki guztiak berrmatu nahi ditu, oinarritzko legediak aitortutako terminoetan. Hori dela eta, legearen esparruan, mantenduko da bilketa izan dadila 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalek beren borondatez onar dezaketzen zerbitzu bat (baita, 20.000 biztanletik beherakoek ere, baldin eta hura kalitate berdinarekin edo handiagoarekin eta kostu txikiagoarekin emateko modua badute (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 26.2 artikulua). Baina agerikoa da zerbitzu horrek jada bere udalez gaindiko dinamika berekia sortu duela. Praktikan, hondakin bilketarako eta garraiorako sistemak udalarenaz gaindiko eskalan artikulatzeko beharrak polemika gutxi sortzen du, batere polemikarik ez duela sortzen ez esatearren.

Bere aldetik, 2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakin Planak egungo gobernantza sistemaren hobekuntza bat jasotzen du. Nafarroak gobernantza bakar eta koordinatua egitearen alde egiten du, gutxienez ere garraioari eta tratamenduari dagokienez. Horri buruz hauxe dio 2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakin Planak “Hondakin kudeaketarako ente publiko bat sortuko da, eta hartan Nafarroako Gobernu eta toki entitate eskudunak egonen dira ordezkaturak; horiek, beren borondatez, entearen esku utzi ahalgo dituzte nahi dituzten zerbitzuak. Kudeaketarako ente publikoak, horretarako, beharrei egokitutako zerbitzuen karta bat edukiko du (bilketa, tratamendua...)”.

Gogorarazi beharra dago etxeko hondakin kudeaketarako Nafarroan dagoen planean, gaur egun, bereiz jasota daudela bilketa eta tratamendua:

- Bilketa: toki entitateek egiten dute, eta horretarako 15 mankomunitatetan eta udal batean antolatuta daude. Zeinek bere aldetik egiten du bilketa, Baztango, Bortzirietako eta Malerrekako kasuan izan ezik, hiru horiek batera egiten baitute.

- Garraioa eta tratamendua: bi entitate handi daude, modu independentean funtzionatzen dutenak:

- Iruñerriko Mankomunitatea (aurrerantzean IM), zeinak Nafarroako biztanleriaren ehuneko 55 inguru hartzen baitu,

- eta Nafarroako Hondakin Partzuergoa, zeinari garraioaren eta tratamenduaren arloko bere eskumenak eskuordetu baitizkiote gainerako 14 mankomunitateek eta Baztango Udalak. Partzuergoak Nafarroako biztanleriaren ehuneko 45 hartzen du.

Nafarroako Hondakin Partzuergoa elkarte-izaerako toki entitate bat da, non Nafarroako Gobernuak ordezkartzaren ehuneko 50 eta gainerako mankomunitateek (IM kenduta) gainerako ehuneko 50a duten, mankomunitate bakoitzak ordezkartza berdina duela. 2007an eratu zen, zabortegetan pilatzen diren hondakinak pixkanaka gutxitzeko helburuarekin, eta pilatze hori ez zedin zuenean egin, baizik eta alde aurretik tratamendu bat eginda. Hartara, ezarpenari buruz egindako azterlanak planteatzen zuen transferentzia plantak sortzeko eta tratamendu zentroak erabiltzeko zenbait agertoki tekniko, izaera ekonomiko eta finantzariokoak (tasa bakarra), mankomunitateen eskumen-mugak gaitzetzekoak. Ekintza horiek garatzeko, 2007an, partzuergoa eratu zen.

Hona hemen haien eginkizunak:

– Etxeko hondakinak tratatzeko zerbitzua ematea, hartan integratutako Nafarroako toki entitateen enkarguz.

– Partzuergoko kide diren entitateekiko lankidetzaren teknika, hondakin horiek biltzearen arloan.

– Nafarroako Hondakinen Plana onesteko edo aldatzeko proposamenak egitea.

– 2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakinen Planak, gainera, “lurralde-orekaren” printzipioa biltzen du erreferente nagusietako baten gisara: “bultzatuko da Nafarroako Foru Komunitateko herritarrek behar adinako kalitatea duen zerbitzu bat izan dezatela, ahal den guztian lurralde-oreka handi bat lortzeko”.

Proposamen horrek berekin dakar gure tokiko plantaren eskumenaren lurralde-banaketa hobea egitea, bai eta Nafarroako Hondakinen Partzuergoaren egungo lana indartzea ere; horrek berekin dakar haren egungo errealitatea aldatzea, honako helburu hauek lortzeko:

– Bere nortasun instituzionala egokitzea 2015ean Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak egindako gomendioaren arabera, “partzuergoa” ez dadin tokiko ente gisa hartu, “Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duen abenduaren 2ko 23/2014 Foru Legeak” egiten duen bezala, ohartarazita lege horren aurkako konstituzio kontrarikotasuneko errekurtsoa aurkeztuko dela gomendio hori aintzat hartzen ez bada.

– Nafarroako lurralde osoa ente horretan sartzeari; horrek berekin ekarriko luke Iruñerriko eskualde berria ere sartzeari, zeren eta egungo Iruñerriko Mankomunitatea ez baitago Hondakinen Partzuergoan.

– Gaur egun arazoak sortzen jarraitzen duten gai batzuk hobetzea; esate baterako, hondakinen tratamenduaren arloan hurbiltasunaren printzipioa edo prebentzioa aplikatzea. Gauza bera gertatzen da tasen gaiarekin.

Bi proiektuen (2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakinen Plana eta Nafarroako Toki Administrazioaren Erreforma) funtsezko ideia bera da: herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetzea, eskala bateratuagoa duen kudeaketa batetik abiatuta. Horretarako, konponbidea eman behar zaie 2017-2027 NHPeko DAFO azterketan bertan aipatzen diren gaur egungo arazoei.

Horrenbestez, ikusten dugu guztiz bateragarriak eta elkarren osagarriak direla bi proiektuak, kudeaketa bateratuago baterantz urratsak emateko; horrek berekin dakar zerbitzua eskualde berrie-

tan integratzea, lurralde-egonkortasunarekin eta foru lurraldeko mailan hura egungo Hondakinen Partzuergoarekin homologa daitekeen ente batek kudeatzea, haren gabeziak zuzentze aldera.

Hondakinen udalez gaindiko kudeaketaren gaia eta tokiko planta berria:

2017-2027 NHPk hondakinak aipatzen dituenen, udalez gaindiko entea den aldetik, mankomunitatearen figura aipatzen ari da. Bistan denez, ezin zuen oraindik ere eskualdea aipatu, zeren oraindik ere ez baita existitzen Nafarroan erakunde formal gisa, eta eskualdea ezartzeko proposamena egin baita Hondakinen Plana garatzen joan den aldi berean, Nafarroako hautetsiek tokiko erforman parte hartzeko prozesutik abiatuta; prozesu hori, izan ere, ez da datorren ekainera arte amaituko. Ez du ematen, halere, inongo zailtasunik dakarrenik eskualdearen kontzeptua homologatzea 2017-2027 NHPk udalez gaindiko enteetarako planteatzen dituen ideiekin.

Nafarroan, gaur egun 15 mankomunitate eta udal bat badaude hondakinak kudeatzen dituztenak. Oro har, mankomunitate horien eginkizun bakarra da zerbitzu hori ematea, baina mankomunitate batzuek beste zerbitzu mankomunitatu batzuk ere kudeatzen dituzte.

– Honako hauek dira soilik hondakinak kudeatzen dituzten mankomunitateak: Bidausi, Irati, Ezka-Zaraitzu, Goi Erribera, Goi Araxes, Mendialdea eta Bortzirriak.

Bestetik, honako hauek ere badauzkagu:

– Mairagak hondakinak eta uraren hornidura kudeatzen ditu.

– IMk hondakinak, uraren hornidura eta eskualdeko hiri garraioa kudeatzen ditu.

– Jurrmendik hondakinak, uraren hornidura, etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko bulegoa, landa garapena eta turismoa kudeatzen ditu.

– Zangozak hondakinak, uraren hornidura eta gizarte zerbitzuak kudeatzen ditu.

– Malerrekak hondakinak, euskara eta gizarte zerbitzuak kudeatzen ditu.

– Izarbeibarrek hondakinak, uraren hornidura eta euskara kudeatzen ditu, eta gizarte zerbitzuak bereganatzeko prozesuan dago.

– Sakanak hondakinak, uraren hornidura, etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko bulegoa, euskara, immigrazioa eta kirola kudeatzen ditu.

– Erriberak hondakina, etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko bulegoa eta bide-garbigaketa kudeatzen ditu.

Egoera horren aurrean, zentzu handiagoa hartzen du, oraindik ere, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako proposamenak, lurralde irizpide bateratuak ezartzekoak, udalez gaindiko zerbitzuak emateari dagokionez.

Toki-erreformaren lerro nagusien agiriak Nafarroaren udalez gaindiko planta 13 eskualdetan banatzen du: Erribera, Goi Erribera, Erdialdea, Jurramendi, Izarbeibarra, Zangoza, Aurrepirinioak, Pirinioak, Iruñerria, Ibarak, Sakana, Ipar-mendebaldea eta Baztan-Bidasoa. Halere, eskualde horien kopurua eta osaera oraindik ere aldatu ahal dira. Horri dagokionez, ez du ematen ahalegin handiagoa eskatzen duenik egun mankomunitatek ematen duten zerbitzu hori etorkizuneko eskualdeetan integratzea; izan ere, horrek balioko du, gainera, zerbitzu hori lurraldean hobeki antolatzeko. Hala eta guztiz ere, beti bi premisatan oinarrituta jardunen da:

- “Zerbitzua bermatzea: egungo azpiegituren sareak ez dira “zatituko”. Egun zerbitzu hori ematen duen mankomunitatearen oinordekoa den eskualdearen titulartasunaren pean jarraituko dute. Ez dira baztertzekoak epe luzeko aldaketa batzuk (adibide bat jartzearren, EUTE jakin bat, zeinaren titulartasuna eskualde batetik bestera eskualdatu ahalko baita), baina soilik plangintza zuzendariak horretarako bidea ematen badu, zerbitzuaren kalitatea kaltetu gabe eta betiere bi eskualdeak aurrez ados jarrita.

- Udalentzako bermea: mankomunitate baten esparrutik beste eskualde desberdin baten esparrura aldatzen baita zerbitzurako azpiegituren sarearen titularra. Legez bermatuko zaie zerbitzua jasotzen jarraitzea (hala nahi duten bitartean) zerbitzua ematen duen eskualdean sartuta dauden udalei aplikatzen zaizkien baldintza berdinetan. Beste hitz batzuekin esanda, ezin izanen zaizkie aplikatu “kanpotarraren tarifak”, ez eta beste eskualde batekoak izatekotan erreklamatu zitzazkiekeen ekarpenak eskatu ere. Adibidez, Iruñerriko Eskualdearen araudian oinarrituta, udal jakin batek eskualdeko enteari 100.000 euro ordaindu behar badizkio dagoen saretik uraren goi-hornidura emateko zerbitzuarengatik, beste eskualde batera aldatzen bada, 100.000 euro horiek berak ordaindu beharko lituzke; eta gauza bera gertatuko litzateke hondakinekin”.

Egun existitzen diren tresna administratibo eta judizialez gainera (Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiaren legezketasunaren kon-

trola, Nafarroako Administrazio Auzitegia, Justizia Auzitegiak), planteatzen da, segurtasun are handiagoa izateko, legezko tresna prebentibo bat gehitzea, era guztietako ez-betetzeak errotik eragozteko, horretarako “banaketa-kontu” bat erabiltzea.

Zerbitzua erabiltzaileei kobratzea udal bakoitzaren eskumena da. Beste hitz batzuekin, diru-bilketaren kudeaketa eskas baten ondorioz adibidean aipatutako udalak ez baditu erabiltzaileengandik biltzen ordaintzeko betebeharrari aurre egiteko behar den 100.000 euroko kopurua, baizik eta 90.000 eurokoa, berdin ordaindu beharko ditu 100.000 euroko kopuru hura (ez badu bere borondatez egiten, birzatatze-kontuaren bitartez kobratu ahalko zaio).

Tasen kobrantzaren kudeaketa onari laguntzeko (bai eta beste edozein likidazio eta udal ordainagiri ere), proposatzen da eskualdetik laguntza ematea hura eskatzen duten udalei.

Halaber, zenbait hipotesi juridiko eta tekniko aztertzen ari dira aurrekoak baino garrantzi txikiagoa izan baina udal jakin batzuentzat interesgarri izan daitezkeen gaiei buruz. Adibidez, berme horiei bere borondatez uko egin eta zerbitzua beste modu batera, antzeko kalitatearekin eta kostu eragingarri txikiagoarekin, lortu nahi lukeen udal baten egoera (betiere, plangintza zuzendaria urratzen ez duen bitartean). Planteatzen da berme gehigarriak eskaintzea egoera horretan dagoen udal batek bere borondatez bereiziz gero eskubide zukeena eskura dezan.”

2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakinen Planaren nagusi den ideia da lurralde egitura hobetzeara honako moduko gaien tratamendu homogeneoa bermatzeko: tratamendurako-azpiegiturak, prebentzio-planak, birziklatzea, garbigunak eta abar. Zalantzarik gabe, modu horretara eskualdeen bitartez antolatutako egitura batek jarduteko modu hori erraztuko du.

Finantzaketa:

2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakinen Planaren agiriak planteatzen du gero hondakinei buruzko foru lege bat gara dadin, fiskalitatea bezalako alderdiak lantzeko, haien bitartez kontrolaren jasagarritasuna ebaluazioa eta hondakinen kudeaketa bermatzeko. Aipatzen du, gainera, fiskalitateak zigor ekonomikoak ezarriko dituela, hondakinen sorreraren arabera, “kutsatzen duenak ordaintzen du” printzipioa aplikatuta.

Gaur egun, kudeaketaren finantzaketa honako hauen bitartez lortzen da: Toki Ogasunen Funtsaren ekarpenak, Nafarroako Gobernuak onesten

dituen toki inbertsioetarako planen bidez; hondakinak birziklatzerako saltzea eta kudeaketa sistema integratuen ekarpenak.

Tasak

Iruñerriko Mankomunitatearen kudeaketa-entitateak bilketarako eta tratamendurako tasa bakar bat dauka, ordenantzetan jasota dagoena.

Nafarroako Hondakinen Partzuergoak tratamendurako partzuergo-tasa arautzen duen ordenantza fiskal bat badauka, partzuergo-esparru osoan bakarra dena; kudeaketa entitateek beraiek arduratzen dira tasa hori abonatuei kobratzeaz. Partzuergoak hitzarmenak dauzka kide diren entitateekin, eta hitzarmen horien bitartez tributu bidezko diru-sarrera horren kudeaketa entitate horiei eskuordetzen die. Partzuergo-tasa definitu zen etxeko tasa oinarri hartuz eta hari faktore biderkatzaile bat aplikatuz, etxekoak ez diren tasak lortzeko. Etxeko tasa ezartzen da honako hauek kontuan hartuz: tratamendu-zerbitzuaren gastu guztia, birjarpen-funtserako kopurua eta inbertsio plana.

Bistan da HKParen iradokizunak aurrera eramateko, tasa guztiak ezartzeko irizpideen homologaziorantz aurrera egin beharra dagoela. Helburu hori bat dator toki-erreformaren planteamenduekin. Finantzaketa orekatu eta jasangarri batek berarekin dakar irizpide baliokideak erabiltzea tasak ezartzerakoan, zeren eta hori baita zerbitzua finantzatzeko bitartekoa, azpiegituren

kasuan izan ezik. Toki-erreformak planteatzen du eskualdea izan dadila bai tasa, bai zerbitzua kudeatzen dituen.

Azpiegituren finantzaketari dagokionez, toki-erreformak planteatzen du haien diseinua dagokion plan zuzendarian jaso dadila, eta plan horri lotutako obrak finantza daitezela Toki Ogasunen Funtsaren bitartez, "Inbertsioetarako Programa" izanen denaren atal berri baten bitartez; izan ere, horrek plan zuzendariei lotutako obretan izanen du eragina, eta gaur egun Toki Inbertsioen Plan gisa ezagutzen duguna ordeztuko du. Horri dagokionez, azpiegitura berri bat egitea planteatzen den guztietan, dagokion eskualdeak obraren finantzaketan dagokion ehunekoak bere gain hartuko du eta bere baliabideekin ordainduko du, eta gainerakoa Toki Ogasunen Funtsari esleituko zaio, aipatutako programaren indarrez.

Plangintza horrek, funtsean, berekin dakar jarraitutasuna ematea hondakinen arloa dela-eta behar diren azpiegitura berrien kudeaketari, entitatea hari egiteko nahikoa dela eta etorkizunean jasangarria izanen dela bermatuz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Galdera, Góngora handitzeari eta Iruñerriko balizko zabortegei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Carmen Segura Moreno andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Góngora handitzeari eta Iruñerriko balizko zabortegei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mari Carmen Segura Moreno andreak ondoren azaltzen den galderari idatziz erantzuteko eskatu du, eta ondotik dator Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna. "Hondakinei buruzko 2017tik 2027ra bitarteko Planak ez du suntsitze-azpiegitura berririk jasotzen, eta Carcarko eta Tuterako Culebrete zabortegeiak mantentzea aurreikusten du, horien

erabilera-bizitza oinarri, eta bi horiek handitzea darabil gogoan.

Góngorako zabortegeari dagokionez –2022an ixtea dago aurreikusita–, planak onartzen du hitzarmenaren indarraldiaz haragoko ahalmena duela. Gobernuak Góngora handitzea exigituko al du? Zer epe darabil Iruñerriko balizko zabortege berrirako? Erabaki hori hartzeko eskumena Iruñerriko Mankomunitatearena ala zurea da?

2022rako prest ez badago, eta Cárcarko eta El Culebreteko handitzeak kontuan hartuta, Gobernu honek gogoan al darabil Nafarroako hondakin guztiak bi eremu horietan lurperatzea? Ezezkoan, zer aukera darabil gogoan?

Gobernuak ba al du ahalmenik mankomunitate ezberdinen hondakinen kudeaketari buruz erabakitzeke? (9-17/PES-00039). Hona hemen kontseilariaren erantzuna:

Egindako galdera:

Gobernuak Góngora handitzea exigituko al du?

Erantzuna: Etxeko hondakinak suntsitzeko azpiegiturei dagokienez:

2017-2027 Planak dauden zabortegei eustea jasotzen du, honako berezitasun hauekin:

– Carcarco eta Culebreteko zabortegeiak: bizitza erabilgarriaren amaierara arte aprobetxatuko dira, 2020a baino lehen geratzen zaien gaitasunari buruzko analisi exhaustibo bat eginda. Gainera, jasota dago litekeena dela haiek handitzea, betiere planaren indarraldiaren lehenengo urteetan ingurumen-babesa duten tokiekiko daukaten bateragaitasuna aztertuta.

– Gongorako zabortegea: geratzen zaion gaitasunak aukera emanen lukeen arren planaren horizonteaz harantzako erabiltzen jarraitzeko, Iruñerriko Mankomunitatearen eta Aranguren Ibarreko Udalaren arteko itunaren arabera 2022ra arte baizik ezinen da erabili; hori dela eta, zabortege hori aipatutako itunaren amaiera arte baizik ez da erabiliko suntsitzerako azpiegitura gisa.

2017-2027 Planak ez du suntsitzerako beste azpiegiturarik jasotzen, suntsitzerako zatiak pixkanaka behera egin baitu, dauden azpiegiturei gaitasuna geratzen baitzaie eta azken horiek, gainera, handitu baillitezke. Halere, aukeran, beste zabortege txiki bat presta liteke Iruñerrian, zeren eta biztanleriaren erdia baino gehiagok hartzen baitu, beste zabortegei batzuetarako garraioa saiheste aldera.

Egindako galdera:

Zer epe darabil Iruñerriko balizko zabortege berrirako? Erabaki hori hartzeko eskumena Iruñerriko Mankomunitatearena ala zurea da?

Erantzuna: Hondakinen Plana garatzeko aintzat hartutako inbertsioek 55.401.000 euro egiten dute 2017-2027 aldi osorako, kontuan hartuta Iruñerriaren inguruan aukeran ezar litezkeen azpiegitura berriak: Transferentzia-planta, hondakindegia eta errefusa tratatzeko planta; horien guztien kasuan, egiteko daude haiei buruzko aukeren azterlanak. Inbertsio horietako batzuk egitea 2019tik aurrera dago aurreikusita; esate baterako zabortegei eta errefuserako plantei dagozkienak, behin isurketarako kanona ezartzen denean.

Besterik da errefusa tratatzearen beharra, Gongorako zabortegea (edo beste edozeinetara) isuri baino lehen, Zabortegei buruzko 1481/2001 Errege Dekretuari jarraituz. Planaren 4. kapituluaren, etxeetako eta saltokietako hondakinen fluxuari dagokion egungo egoera dela eta, aipatzen da “Gongorako zabortegeiak aurrez tratamendurik jaso gabeko errefusa hartzen duela. Hori dela eta, 2016rako ezarrita zegoen lege-helburua urratzen ari da. Horrenbestez, OR.05 helburua ezarri da, 2017ko abenduaren 31 baino lehen zabortegea iristen den errefusaren % 100 tratatzeko. Bi mugarririk desberdin dira: premiazkoena da lehen bai lehen zabortegean zuzenean hondakinak botatzeari uztea (esate baterako, etxeetako hondakinen errefusa), kudeaketarako ordezkari aukerak bilatzeko modua ematen duen epemuga batekin. Dena den, gai honetan urgutzia dago, egun instalazio horren araudia urratzen ari baita.

Azkenik, aipatu beharra dago Hondakinen Plana plangintzarako agiri bat dela, Nafarroako hondakinen kudeaketarako helburuak ezartzen dituen, 2017-2027 horizontearerain; ez da, ordea, hondakinen kudeaketari buruzko eskumenak ezartzeko agiria, horiek ingurumenari buruzko araudi indardunetan baitaude.

Egindako galdera:

2022rako prest ez badago, eta Cárcarko eta El Culebreteko handitzeak kontuan hartuta, Gobernu honek gogoan al darabil Nafarroako hondakin guztiak bi eremu horietan lurperatzea? Ezezkoan, zer aukera darabil gogoan?

Erantzuna: 1. erantzunean erantzun zaio gai horri.

Egindako galdera:

Gobernuak ba al du ahalmenik mankomunitate ezberdinen hondakinen kudeaketari buruz erabakitzeke?

Erantzuna: Hondakinen Plana plangintzarako agiri bat da, Nafarroako hondakinen kudeaketarako helburuak ezartzen dituena, 2017-2027 horizon-tearekin; ez da, ordea, hondakinen kudeaketari buruzko eskumenak ezartzeko agiria, horiek ingurumenari buruzko araudi indardunetan baitaude.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria

Galdera, 14/2015 Foru Legeko ekintza planean aurreikusitako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana San Martín Aniz andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 14/2015 Foru Legeko ekintza planean aurreikusitako neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 8an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana San Martín Aniz andreak 9-17/PES-00040 idatzizko galdera egin du. Hona horri buruz Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak informatu beharrekoa:

Hezkuntzari buruzko Plan Sektorialaren hiru ekintzak, idatzizko galderan aipatzen direnak, Hezkidetzari buruzko Planean jasota daude –2016/2017 ikasturtean hasi da plan hori–, bai eta ikastetxeetako hezkuntza proiektuetan garatutako bizikidetasun eta berdintasun baloreetan ere.

Plan sektorialaren helburua da hezkuntzaren sektorean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko erantzun instituzionala hobetzea; horretarako, estrategia bat ezartzen da, emakumeen aurkako indarkeriazko era guztietako agerkariei kalitatezko erantzunak emateko, betiere 14/2015 Foru Legearen betetzea bermatuta.

Honako hauek dira Plan Sektorialaren helburuak: genero berdintasuna hezkuntza politikan txeratzea, harreman eta estereotipo sozialen ereduetan behar diren eraldatzeak bultzatzeko; eta ahal den gaitasun profesional eta espezializatu handiena sortzea hezkuntzan esku hartzen duten profesionalen kolektiboetan, indarkeria-egoeretan dauden emakumeen kalitatezko erantzunak emateko eta esku-hartzean inplikaturik dauden hezkuntzaren sektoreko taldeei aitortza eta prestigio profesional handiagoa emateko.

Erantsitako agirian zehazten da plan sektorialeko I. eta III. ardatz estrategikoen garapena.

Iruñean, 2017ko martxoaren 8an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Agora sisteman.)

Galdera, biztanleria aktiboaren gaineko inkestaren kalkuluari begira Estatuko Estatistika Institutuak egindako aldaketa metodologikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, biztanleria aktiboaren gaineko inkestaren kalkuluari begira Estatuko Estatistika Institutuak egindako aldaketa metodologikoei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak galdera egin du Biztanleria aktiboaren gaineko inkestaren kalkuluari begira Estatuko Estatistika Institutuak egindako aldaketa metodologikoei (9-17/PES-0041). Horri erantzuteko, Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako kontseilariak Nafarroako Estatistika Institutuko zuzendari Pablo Cebrián Jiménezek egindako txostena igortzen dizu, eta honako hau ere informatzen dizu:

Bere garaian baieztatu zen bezala eta txosten hau irakurriz egiaztatu ahalko duzuen bezala, alderdi metodologikoei, zehazki Nafarroaren laginaren tamainarekin lotutako lagin-akatsetik eratorritako mugek, eragiten dute gorabehera edo alde atipikoak gerta daitezela; halakorik, ordea, ez da aurkitzen laginak handiagoak direnean. 3. irudian egiaztatu ahalko duzu, serie osoan bezalaxe, 2008tik hasi eta gaur arte, 2016ko hirugarren hiru-hilekoko biztanleria aktiboaren inkestan baizik ez dela gertatzen biztanleria landuna, biztanleria aktiboaren inkestaren arabera, txikiagoa izatea Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua baino; inguruabar hori, berriz, laugarren hiru-hilekoan zuzenduta dago, baieztatu zen bezala.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunaren PES0041 galdera parlamentarioa dela-eta, honako hau informatu behar dugu:

– Biztanleria aktiboaren inkesta Estatistikako Institutu Nazionalaren eskumeneko inkesta bat da.

– Nafarroako Estatistika Institutuak eta Estatistikako Institutu Nazionalak informazioa elkarrekin trukatzeko akordio bat dute, non jasotzen baita biztanleria aktiboaren inkestako mikrodatuak Nafarroako Estatistika Institutuari lagatzea, Estatistikako Institutu Nazionalak egiten duena baino zabal-kunde handiagoa eman diezaien.

– Horretaz gainera, bi erakunde horien arteko harremanak badaude, eta egiten diren operazio garrantzitsuenei buruz informatuta daude.

– Nafarroako Estatistika Institutuak ez daki biztanleria aktiboaren inkestak azken urte hauetan aldaketa metodologikorik gertatu izana. Azken aldaketa garrantzitsua biztanleria-oinarriaren aldatetari dagokiona da, 2011ko biztanleriaren eta etxebizitzaren errolden emantzetatik heldu dena. 2014an egin zen.

Gainera, informatu behar dugu, halaber, biztanleria aktiboaren inkestarekin eta lan merkatuarekin lotutako beste estatistika iturri batzuekin zerkusia duten gai batzuei buruz, okupazioaren gaineko datuak interpretatzeko interesgarri gerta daitezkeelakoan.

2016ko laugarren hiru-hilekoan Nafarroarako lagin efektiboa 1.359 etxebizitzarena da, zeinetan 3.295 pertsona bizi baitziren. Ikusten da lagin hori txikiagoa dela 2014koa baino, baina ez da aldaketa metodologikorik egin.

Hiruhilekoa	Pertsonak	Etxebizitzak
4/2014	3.778	1.501
1/2015	3.830	1.521
2/2015	3.693	1.471
3/2015	3.588	1.445
4/2015	3.522	1.414
1/2016	3.398	1.372
2/2016	3.279	1.327
3/2016	3.217	1.321
4/2016	3.295	1.359


Biztanleria aktiboaren inkesta, beraz, oinarrituta dago aldagai asko dituen eta Europako lanindarrari buruzko inkesten aldean homogeneoa den galdetegi batetik heldutako azterlan batzuetarako egokitzat jotzen den lagin batean. Hala ere galdetegi horrek aldagai jakin batzuk analizatzeko muga batzuk badauzka, tamainari dagokion lagin-akats batetik heldutakoak, eta arretaz erreparatu behar zaio horri guztiari.

Nafarroako laginaren tamaina dela-eta gorabehera edo alde atipiko batzuk badaude, lagin handiagoak hartuta –Espainiarena, esate baterako– gertatzen ez direnak, edo erregistro administratiβοetan –Gizarte Segurantzaren afiliazioa, esate baterako– oinarritutako iturrietatik heldutako


datuekin gertatzen ez direnak, hurrengo irudietan ikus daitekeen bezala.

Kontu hori ez da gertatzen soilik biztanleria aktiboaren inkestan, baizik eta koiunturako iturri guztietan, eta zail egiten du ebaluatzea gorabeherak laginarekin zerikusia duen akats bati ala egitate errealei dagozkien; izan ere, egitate errealetan, Nafarroaren tamaina dela eta, gai puntual baten eraginak garrantzi handixkoa izan dezake. Hori dela eta, Nafarroako Estatistika Institutuak egiten duen koiunturako analisiak, esate baterako Nafarroaren Hiru Hilabeteko Kontabilitaterako, zenbait iturri estatistiko erabiltzen ditu zenbatesten duen agregatu bakoitzeko, eta Gizarte Segurantzaren afiliazioa biztanleria aktiboaren inkestaren osagarri garrantzitsu bat da.

1. irudia. Biztanleria aktiboaren inkestaren arabera Nafarroan eta Espainian dauden landunak (urtetik urterako aldea)



2. irudia. Gizarte Segurantzaren afiliatuak eta biztanleria aktiboaren inkestaren arabera dauden landunak Nafarroan (urtetik urterako aldea)



Irudi hauetan egiazta daiteke biztanleria aktiboaren inkestako landunen sailak alde oso nabarmena erakusten duela; halakorik ez da gertatzen, ordea, intentsitate berarekin, gainerako iturrietan, eta horrek koiunturako analisia nahas dezake. Gorabehera horiek zabalagoak izan dira azken urtean, zeinean, bigarren hiruhilekoan landunen kopuruaren jaitsiera oso nabarmena izan ondoren, intentsitate aipagarriko igoera batzuk izan baitira –horiek ere atipikotzat jo daitezke–.

Halaber, bigarren hiruhilekoan egitate garrantzitsu bat gertatu da lan-merkatuaren adierazleen analisian; esate baterako, Gizarte Segurantzaren afiliazioa handiagoa izatea biztanleria aktiboaren inkestako okupazioa baino. Gai hori Estatistikako Institutu Nazionalarekin landu zen, eta hark datua lortzeko prozesuak berrikusi eta ez zuen inongo akatsik aurkitu, laginaren tamainari berari datu-tzekionetatik heldutakoak izan ezik.

Gizarte Segurantzaren afiliazioak eta biztanleria aktiboaren inkestako landunek, bestelako datuak lortzeko metodologiak izateaz gainera –bata erregistro administratibo bat da eta bestea inkesta bat–, definizio desberdinak ere badituzte.

Hartara, biztanleria aktiboaren inkestako landunen zenbatekoa 16 urte edo gehiago izan eta erreferentziako astean gutxienez ordubetez ordainsari baten truke (lansaria, eguneko saria, enpresa-onura eta abarrekoak), dirutan nahiz espeziean, lan egin duten pertsonen dagokie.

Afiliazioaren datu horrek altan dauden langileak hartzen ditu (ez dira kontuan hartzen langabeak eta ikasleak), eta horregatik sistema publikorako kotizatu behar dute, gutxienez erretiro, baliaezintasun eta heriotza egoeratarako babesa izateko.

Honako hauek izan daitezke iturri estatistiko horien artean dauden alde garrantzitsuenak:

- Lege-aldaketek eragina izan dezakete afiliazioaren fitxategian (esate baterako ordu kopuru jakin bat egiten duten langileak afiliatzeko betebeharra; esate baterako, etxeko langileak).


- Alegiazko kotizazio-ordaintzaile batzuk ere badaude, etorkizunean erretiro-pentsio bat lortzea edo langabeziako sorospena jasotzeko eskubidea izatea bilatzen dutenak.

- Biztanleria aktiboaren inkestaren arabera lana duten pertsona batzuk badaude Gizarte Segurantzari kotizatzeko betebeharrak ez dutenak; familia-laguntza batzuen kasua da (langile horiek Gizarte Segurantzaren egon behar dute soilik ohiko, funtsezko eta zuzeneko moduan lan egiten dutenean). Halaber, pertsona batzuek afiliatuta egon beharra daukate, baina ez daude.

- Afiliazioaren fitxategiak ez ditu jasotzen beren mutualitateei afiliatuta dauden funtzionarioak, Gizarte Segurantzaren sistemako araubideren batean sartzea determinatzen duen beste jarduerarik ez badute.

Funtsean, azken inguruabar hori dela eta, biztanleria aktiboaren inkestako landunen kopurua handiagoa da Gizarte Segurantzako afiliatuena baino, 2016ko bigarren hiruhileko horren salbuespenarekin; izan ere, hiruhileko horretan, afiliazioaren igoerarekin batera landunen beherapena etorri zen, eta horrek eragin zuen lehenengo aldiz afiliazioaren datua handiagoa izatea biztanleria aktiboaren inkestako datua baino. Denborazko serie batean, gisa horretako egitate batek hurrengo hiruhilekoetan dauzka ondorioak, eta horrek berekin dakar urte arteko aldean profilak etengabe igoerak eta beherapenak izatea, koiunturako analisia zaila egiten dutenak.

3. irudia. Biztanleria aktiboaren inkestaren eta Gizarte Segurantzaren afiliazioaren arteko alderaketa (pertsonek, milakotan)



Horrenbestez,

– Biztanleria aktiboaren inkestan ez da aldaketa metodologikorik izan azken urteetan.

– Afiliazioaren eta biztanleria aktiboaren inkestako okupazioaren arteko korrelazio bat badago, baina ez dituzte egitate berak neurtzen; horrenbestez, garrantzitsua da iturri desberdinak aztertea koiunturako analisia egitean.

Iruñean, 2017ko otsailaren 22an

Nafarroako Estatistika Institutuko zuzendaria
Pablo Cebrián Jiménez

Galdera, “Nuevo Futuro Navarra” elkartearekiko hitzarmena berritzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Mónica Domenech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Nuevo Futuro Navarra” elkartearekiko hitzarmena berritzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera egin du “Nuevo Futuro Navarra” elkartearekiko hitzarmena berritzeari buruz (9-17/PES-00042). Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako Departamentuak informatzeko duena:

Nuevo Futuro Elkarteak 1968tik zenbait jarduketara garatu izan ditu haurrak babestearen arloan. 2016ko urrian, entitate horrekin 10 urterako izen-

petutako kontratuaren indarraldia amaitu zen. Kontratuak hartzen zuen babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako oinarrizko egoitza-harrerako 64 postu kudeatzea.

Kontratuaren indarraldia amaituta, baldintza-orri administratibo eta tekniko berriak garatzeko lanak egiten ari dira. Baldintza-orri horiek, zeinak izapidetzen ari baitira, lizitazio berriaren oinarriak ezarriko dira. Lizitazio hori Kontratu Publikoek buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen araberakoak izanen da.

Lizitazioak honako hauek jasoko ditu:

1) oinarrizko egoitza-harrerarako egun dauden 64 postuei eustea;

2) egoitza-harrera espezializatuko 5 postu berri ezartzea; eta

3) ingurune irekiko 10 postu ezartzea, prozesuaren amaieran dauden adingabeak bizitza autonomorako prestatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko martxoaren 3an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten D ereduko ikasliburuei edo beste edozein euskarriri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten D ereduko ikasliburuei edo beste edozein euskarriri buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2017ko otsailaren 10eko 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2017ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak 9-17/PES-00043 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren laugarren xedapen gehigarrian, testuliburuei eta gainerako curriculum-materialei buruzkoan, honako hau dio hitzez hitz:

1. Autonomia pedagogikoa baliatuta, ikastetxe publikoen koordinazio didaktikoko organoek hartu beharko dituzte irakaskuntzak garatzeko erabili beharreko testuliburuak eta gainerako materialak.

2. Testuliburuak eta gainerako materialak editatzeko eta hartzeko, ez da beharrezkoa izango

hezkuntza-administrazioaren alde aurreko baimena. Nolanahi ere, ikasleen adinari dagokion zehaztasun zientifikora eta hezkuntza-administrazio bakoitzak onartutako curriculumera egokituta egon beharko dute. Gainera, Konstituzioan jasotako printzipioekiko, balioekiko, askatasunekiko, eskubideekiko eta betebeharrakiko, eta lege honetan eta Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan jasotako eta hezkuntzajarduera osoak jarraitu beharreko printzipioekiko errespetua islatu eta sustatu beharko dute.

2.- Hezkuntzako kontseilariaren uztailaren 5eko Foru Aginduak –indarrrik gabe uzten dituenak martxoaren 4ko 37/2010, ekainaren 18ko 103/2010, abuztuaren 31ko 146/2010 eta irailaren 22ko 88/2014 foru aginduak– honako hau ezartzen du: “liburuetan “Euskal Herria” terminoaren erabilera kulturaren eta hizkuntzaren testuinguruan egiten da eta ez testuinguru politikoan, horixe izanik arrazoi nagusia finantzaketatik baztertzeko foru agindu horien arabera, nahiz ez duten batere zehazten; hortaz, ez du inolako pisurik Nafarroaren errealitate instituzionalarekiko errespetu faltak.”

Aurreko bi puntuetan aipatutakoa kontuan hartuta, ez dugu inongo testulibururik edo curriculum-materialik detektatu Nafarroako Foru Komunitateak Espainiako Estatuan eta Europar Batasunean

osatzen duen errealitate politiko berezitua
errespetatzen ez duenik.

Iruñean, 2017eko otsailaren 28an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza
Peña
